

## DONOSTIANN DONOSTIAKO ENPRESA PROIEKTU BERRITZAILEAK BULTZATZEKO ETA HAIEN LEHIAKORTASUNA AREAGOTZEKO LAGUNTZEN PROGRAMA. EKONOMIA BULTZATZEKO PLANA DSS2022.

### ATARIKOA

Donostia Sustapena SAK, Donostiako Udalaren garapen ekonomikorako sozietateak, besteak beste **hiriaren garapen ekonomiko eta soziala** bultzatzea du xede, batez ere **kohesio eta jasangarritasun** irizpideei jarraituz eta hiriko zenbait eragileretik eta horien arteko **adostasun eta elkarlanetik**, **berrikuntzaren** aldeko apustu garbia eginez hiria eraldatzeko eredutzat.

2011z geroztik, Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak estrategia hori inplementatzeko urteko plana izan dute, **Ekonomia Bultzatzeko Plana**. Tresna hori sendotuta dago goranzko bilakaerari eta ezarritako helburuak betetzeari esker, eta, horri esker, hiriaren erronka sozial eta ekonomikoei aurre egin ahal izan zaie, tokian-tokian nahiz globalki, azken 10 urteetan, lehiakortasuna eta posizionamendua areagotuz.

Pandemiaren eragin handiak markatutako 2021eko urte zaila emaitza onekin gainditu ondoren, Donostiako Sustapenak tokiko Ekonomia Bultzatzeko Plan berria proposatu du 2022rako.

Donostiako Ekonomia Bultzatzeko 2022ko plan berriak bide berri bati ekin ahal izatea proposatzen du. Bide horrek, **pertsonengan** oinarritutako ekintzen bidez, aurrera jotzearen eta etorkizunari aurre egitearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, **proiektu berritzaileen** garapena babestuz eta proiektu horiei, talentuaren garapenari eta **hiriari** berari euskarri eman diezaieketen tokiko ekosistemaren funtsezko eragileekin sarean lan eginez.

Donostiako Sustapenak hiriari izaera lehiakorragoa eta berritzaileagoa ematen jarraitu nahi du, baina baita sozialagoa, irekiagoa eta kohesionatuagoa ere, gazteen, berdintasunaren eta auzoen arteko gizarte-kohesioaren aldeko apustua egiten duen hiri-eredua indartzeko, 5 ardatzen bidez:

- **Donostia kohesionatua**, lan aukera berriak garatuz eta foku berezia jarriz zailtasun handienak dituzten kolektiboetan.
- **Donostia ekintzailea**, tokiko lehiakortasunari gora eragingo dioten enpresa proiektuak bultzatuz.
- **Donostia** zerbitzu komertzialen hiritzat, kalitatezko merkataritza-ehun berritzailearen alde eginez.
- **Donostia Zientzia eta Berrikuntzan** oinarritutako garapen ekonomikoaren eredu gisa.
- **Donostia Hiri Eraldaketako** proiektu berrien abangoardian.

5 ardatz horien bidez, Donostiako Sustapenak hiriari izaera lehiakorragoa eta berritzaileagoa ematen jarraitu nahi du, baina baita sozialagoa, irekiagoa eta kohesionatuagoa ere, gazteen,

berdintasunaren eta auzoen arteko gizarte-kohesioaren aldeko apustua egiten duen hiri-eredua indartzeko.

Horretarako, Donostiako Sustapenak tokiko enpresa-proiektu berritzaileen hazkundera eta lehiakortasun-hobekuntzara bideratutako laguntza hauek planteatzen ditu, bai gazte kualifikatuak sartuz, bai transferentzia teknologikorako, bai proiektu horien ekintza estrategikoak garatuz.

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA. XEDEA

Laguntza hauen xedea da Donostia Sustapena, SAK lagundu ahal izango dien **tokiko proiektu berritzaileak** bultzatzea, bai proiektuak martxan jartzeko, bai merkatuan hazi eta finkatzeko, bai hiriko ekonomiaren ehuna osatzen duten enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta posizionamendua sendotzeko.

Laguntza multzo hori, berrikuntza eta talentuaren garapena dituela oinarri, ildo hauetan planteatzen da:

- pertsonal kualifikatuarentzako enplegu sorreran laguntzea eta tokiko talentua garatzea.
- jakintza teknologikoa eta zerbitzu aurreratuak eskaintzea osagai teknologikoa duten proiektuak sustatzeko eta garatzeko.
- tokiko proiektu berritzaileak eta estrategikoak azeleratzea.
- tokiko enpresen lehiakortasuna hobetzea berrikuntzaren, nazioartekotzearen eta/edo garapen espezifikoien (zerbitzu espezializatuak, teknologia eskuratzea, patente berriak erregistratzea, etab.) esparruko proiektu estrategikoak garatuz.

Horretarako, Donostia Sustapenak honako laguntza ekonomiko hauek jartzen ditu tokiko ekonomia-ehunaren eskura:

- Talentu berritzailea** (1. kapitulua): laguntza programa, proiektu berritzaileak garatzearen 35 urtez azpiko pertsonal kualifikatua kontratatzerazuzendua.
- Tokiko talentua itzultzea** (2. kapitulua): laguntza programa, atzerrian edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi den pertsonal kualifikatu donostiarra proiektu berritzaileak dituzten erakunde lokaletan aritu dadin kontratatzerazuzendua.
- Innplanta** (3. kapitulua): enpresetan lehiakortasuna hobetzeko proiektu estrategikoak garatzeko programa.
- I+G+b-ko eragileen bitartez proiektu teknologikoak garatzera zuzendutako programak: **Bonu teknologikoak** (4. kapitulua)
  - Ceit-ekiko elkarlanean (4.1 kapitulua)
  - Tecnun-ekiko elkarlanean (4.2 kapitulua)
  - Vicomtech-ekiko elkarlanean (4.3 kapitulua)
  - Tecnalía-ekiko elkarlanean (4.4 kapitulua)
  - Biodonostia OII-ekiko elkarlanean (4.5 kapitulua)
  - CIC NanoGUNE-ekiko elkarlanean (4.6 kapitulua)
  - CIC BiomaGUNE-ekiko elkarlanean (4.7 kapitulua)

Bakar-bakarrik oinarri hauen ondorioetarako, dirulaguntza eta/edo laguntza esango zaie Donostia Sustapenak oinarri hauen babesean egin behar dituen kontraprestaziorik gabeko diru emateei, eta baita 4, 4.1, 4.2, 4.3, 4.4, 4.5, 4.6 eta 4.7 kapituluetan definitutako bonu teknologikoei ere. Horrek ez du, baina, esan nahi dirulaguntzei buruzko araudi orokorrari lotuta daudenik, oinarri hauetan berriaz aurreikusten diren alderdietatik harago.

Osagarri gisa, eta laguntzak ematek edo ukatzetik aparte, Donostia Sustapenak laguntza aditua eskaini ahal izango dio enpresen lehiakortasunari, proposatutako helburuak lortzea bultzatzeko eta proiektua eta sortutako enplegu aukerak finkatzen laguntzeko.

Horrela, hiriaren garapen sozioekonomikoan laguntzen jarraitzea da asmoa, betiere jakintzan eta berrikuntzan oinarriturik, eta honako jarduera esparru hauek harturik aintzat:

- **Donostia “Berrikuntzaren hiri”**tzat sustatzeari lotutako proiektuak: jarduera-ildo horren bidez, negozio eta produktu berriak sustatu nahi dira, teknologia oinarrikoak, berritzaileak eta/edo nazioarteko proiektzioa dutenak (Born Global), bai eta zientzia eta ezagutza hiriko ekonomia- eta ekintzailtza-sarera eta, oro har, herritarrengana zabaltzea eta transferitzea sustatzen dutenak ere.
- Donostia Sustapenak sustatzen dituen tokiko klusterrekin zerikusia duen **“Donostia Espezializatu”** baten aldeko proiektuak: Donostia Smart, Surf City Donostia, Guztiona (Nekazaritzako elikagaiak: tokiko produktuaren garapena), Merkataritza eta Ostalaritza.
- **“Donostia Adimenduna (Smart City)”** lortzeko proiektuak, hiriaren eta herritarren baliabideen erabilera adimentsuaren alde egiten dutenak, esperimentazio eta berrikuntza irekia eta gizarte integratzaile eta sozialki arduratsua sustatzen dutenak.

## 2. ARTIKULUA. BITARTEKO EKONOMIKOAK

Laguntza bakoitzaren zenbatekoa dagokion kapituluan jasotzen da. Zenbateko horiek aldatu ahal izango dira, Donostia Sustapenak hala erabakiz gero.

## 3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduntzat hartuko da laguntza ematea eragin zuen jarduera egin behar duena edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, betiere oinarri hauetan jasotako baldintzak eta, bereziki, laguntza mota bakoitzari dagozkionak betetzen baditu.

Laguntzen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, nazionalak edo atzerritarrak, bai eta aurrekoen taldeak ere, nortasunik gabeak eta ordenamendu juridikoaren arabera behar bezala eratuak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Kanpo geratzen dira ondare sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera definitutakoak.

Oinarri hauetan zehaztuko da zer baldintza bete behar diren laguntzak eskatzeko eta nola egiaztatu behar diren. Nolanahi ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da, ondorio horietarako berariaz aplikagarritzat jotzen baita.

Ezingo zaie laguntzarik eman pertsona fisiko edo juridikoei:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez badituzte.
- Dirulaguntzak eta/edo laguntzak lortzeko aukera galtzea dakarren ebazpen irmoaren bidez zehatuak izan badira, edo laguntzak lortze horretarako ezgaitzen duen legezko

debekuren baten eraginpean baldin badaude, sexu diskriminazioagatik zigortuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera.

- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorrak baldin badauzkate.
- Aurretik emandako laguntzak, osorik edo zati batean, itzuli gabe badituzte, itzuli beharreko zenbatekoa sartu dela egiaztatzen ez den bitartean.

#### **4. ARTIKULUA. DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEARREN ONURADUNEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Deialdian parte hartu ahal izateko onuradunek bete beharreko baldintzak honakoak dira:

- a) Lantokia Donostian edukitzea
- b) Proiektu berritzaileak aurkeztea, I+G+b proiektuak eta/edo enpresarentzat funtsezko jarduera berritzaileak garatzekoak.
- c) Tokiko proiektua izatea, ondoren definitzen den moduan:
  - “Talentu berritzailea” (1. kapitulua) eta “Tokiko talentua itzultzea” (2. kapitulua) laguntzetarako, kontrataziorako laguntzaren xede den pertsonaren lantokia Donostian egongo da.
  - “Innplanta” (3. kapitulua) laguntzen kasuan, diruz laguntzen den jarduera edo inbertsioa Donostian egongo da. Nazioartekotze eta sustapen ekintzetarako laguntzen kasuan, onuradunaren egoitza fiskala Donostian kokatu beharko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 48.2 artikuluan jasotako definizioaren arabera.
  - I+G+b-ko eragileen bitartez proiektu teknologikoak garatzera zuzendutako “Bonu teknologikoak” (4, 4.1, 4.2, 4.3, 4.4, 4.5, 4.6 eta 4.7 kapituluak) laguntzetarako, diruz lagundutako proiektua garatzen den zentro edo establezimenduak Donostian egon beharko du.
- d) Laguntza hauen onuraduna irabazizko jarduera ekonomiko bat garatzen duen pertsona fisikoa izatea edo pertsona juridikoa izatea.

Pertsona juridikoen kasuan, “Innplanta” (3. kapitulua) laguntzetarako honako baldintza hauek ere bete beharko dira eskaeraren neuan:

- I) Ustiapen ekonomikoa izatea.
- II) Aktiboa edo eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehazten den bezala, 2 milioi eurotik gorakoa ez izatea.
- III) Batez beste, plantillan 10 pertsona baino gutxiago edukitzea.

Erakundea Merkataritza Kodearen 42. artikulua arabera sozietate talde bateko kide denean, adierazitako plantillaren neurria talde horretako entitate guztiei buruzkoa izango da.

Salbuespen gisa, “Bonu teknologikoak” (4, 4.1, 4.2, 4.3, 4.4, 4.5, 4.6 eta 4.7 kapituluak) laguntzetarako onuradun izan ahal izango dira, gainera, enpresa bat eratzeko prozesuan diren pertsona fisikoak.

e) Irabazi asmorik gabeko fundazioak eta elkarteak ezin izango dira onuradun izan.

Salbuespen gisa, “Talentu berritzailea” laguntzen (1. kapitulua) eta “Tokiko talentua itzultzea” laguntzen (2. kapitulua) kasuan, ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak arautzen duen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide diren irabazi asmorik gabeko fundazio eta elkarteak onuradun izan daitezke.

f) Ezin izango dira onuradun izan irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondare sozietateen, elkargo profesionalen eta/edo sektore publikoko erakundeen mendeko edo aipatu horiek % 25etik gorako partaidetza duten erakundeak (halakotzat hartuko dira 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen Espainiako ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duenak, 3. artikuluan jasotako erakundeak).

Salbuespen gisa, apartatu honetan deskribatutako kasuan egonik ere onuradun izan ahal izango dira honako baldintza hauetakoren bat betetzen duten erakundeak:

- Mendeko dituen erakundea, edo % 25etik gorako partaidetza duena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide izatea.
- Erakunde eskatzailea bera ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak araututako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide izatea.

## **5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA**

Diruz laguntzeko kontzeptuak eta laguntzen zenbatekoa laguntza mota bakoitzari dagokion atalean daude jasota.

## **6. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA**

Laguntza horiek bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakundek — publiko edo pribatua, nazionala, Europar Batasuneko edo nazioarteko organismoetako izan daiteke— helburu bererako emandako beste edozeinekin, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

Oinarri hauetan ezarritako laguntzek errespetatu egingo dituzte Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan (2013ko abenduaren 24ko EBAOn argitaratua) ezarritako “minimis” arauak. Erregelamendu hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.



Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera jasotako laguntzaren zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

## 7. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerak aurkezteko epea **oinarri hauen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunetik laguntza mota bakoitzera bideratutako baliabide ekonomikoak agortu artekoa** izango da (kasu horretan Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da agortze hori) **edo, bestela, deialdia itxi artekoa (2022ko Urriaren 30ean itxiko da).**

Eskaera egiteko epea amaitu ondoren, soberakinik badago edo zuzkidura ekonomikoa handitzen bada, eta Donostia Sustapenak hala irizten badio, eskaera egiteko epea luzatu ahal izango du, oinarri hauek aldatuz horretarako (kasu horretan, dagokion kanaletan argitaratuko da luzapena).

Eskaerak modu telematikoan aurkeztu beharko dira, Donostia Sustapenaren web orriaren bitartez ([www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus)).

Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan ezinezkoa bada eskaera Sustapeneko atariaren bidez egitea, Sustapenak berak horretarako baimena ematen badu beste bide bat jarriko da eskaera egiteko.

Eranskinak osorik bete beharko dira, eta behar bezala sinatuta egon beharko dute. Erantsi beharreko dokumentazioak sinadura behar du, eta digitalki sinatuta joan beharko du.

Edozein informazio edo kontsulta egin nahi izanez gero, 943 482800 telefonora edo [fomentoss@donostia.eus](mailto:fomentoss@donostia.eus) helbide elektronikora jo daiteke, honako gai hau adierazita: "DonostialNN laguntzak 2022"

Jendearentzako ordutegia Donostia Sustapenaren webgunean aipatzen dena da.

Donostia Sustapenak eskaera aurkeztu aurreko arreta zerbitzua eskaintzen du, sortzen diren zalantzak argitzeko. Zerbitzu hori posta elektronikoz eskatu beharko da aipatutako helbide elektronikoa, eta banakako edo taldeko saioetan eman ahal izango da, Donostia Sustapenak zehazten duenaren arabera eta proiektuen edo laguntzen tipologiaren arabera.

Une berean proiektu bererako laguntza bat baino gehiago eskatzen bada, artikuluan honetan adierazitako dokumentazioa behin bakarrik aurkeztu beharko da, eta eskatutako laguntza guztietarako memoria bakarra aurkeztu beharko da.

Dagokion eskaera-orriarekin batera, eskatzen den administrazio dokumentazio guztia erantsiko da, dokumentazio tekniko eta ekonomikoarekin batera.

### **Dokumentazio administratiboa:**

- a) Eskaera-orria (“Eskaera” eranskina).
- b) Laguntza eskatzen duen pertsona edo erakundearen banku datuen eranskina, dagokion banku erakundeak zigilatua, edo banku agiri baliokidea.
- c) Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NANaren kopia.
- d) Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen IFKren kopia eta, hala badagokio, ahaldunaren NANA.
- e) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- f) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kidea bada, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearen ebazpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agente zientifiko teknologiko gisa akreditatzen eta aitortzen duena.

Onuradunak bere gain hartzen du erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa.

Interesdunek dokumentu horietakoren bat aurkeztu badute Donostia Sustapenaren 2018az geroztiko laguntza programaren batean parte hartzeko, ez da beharrezkoa izango atal honetan eskatutako dokumentazioa berriro aurkeztea, baldin eta indarrean jarraitzen badu eta datuak aldatu ez badira.

Donostia Sustapenak zuzenean lortuko du zerga-betebeharrak beteak izateari buruzko egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bidez (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa), bai eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren historikoa ere (altak, bajak, aldaketak, jarduera-epigrafeak), Gipuzkoako Foru Ogasunak emana.

Dirulaguntza eskatzeko eta ordainketak egiteko unean Udal Zerga Bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden erakundeek egunean daudela egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak berriaz egin ahal izango dio aurka Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzeari. Aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu:

- Laguntza eskatzen duen enpresak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Jarduera ekonomikoei buruzko agiri eguneratua —Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako historikoa—, laguntza eskatu duen enpresari buruzkoa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntzaren eskatzaileak harekin zorrik ez duela egiaztatzen duena.

### **Deskripzio memoria tekniko eta ekonomikoa (“Memoria teknikoa” eranskina):**

Garatu beharreko proiektu berritzailea deskribatuko du memoriak. Informazio tekniko eta ekonomikoa jasoko du, eta proiektuaren diseinu globala erakutsi behar du (faseen garapena, eginkizunak, arduradunak, kronograma, emaitza-adierazleak), hura dagoen egoera argi eta garbi adierazita. Atal hauek jasoko ditu:



1. Proiektuaren izena.
2. Eskatzailearen identifikazio datuak eta datu orokorrak.
3. Proiektuaren eta helburuen deskripzio laburra.
4. Proiektuaren aurrekariak eta justifikazioa.
5. Nazioarteko proiektzioa.
6. Proiektuaren fase nagusien eta garapenaren deskripzio laburra.
7. Laneko kronograma, jarraipena eta kontrol adierazleak.
8. Lantaldearen deskripzioa (barnekoa+kanpoko).
9. Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomiko eta espero diren emaitzak.
10. Proiektuaren inpaktu potentziala.
11. Proiektuak hiriaren ildo estrategikoekin eta Sustapenak sustatzen dituen sektore estrategikoekin duen lotura.

Memoria modu simple eta argian idatziko da, erraz uler dadin, eta proiektua ulertzea distortsiona dezaketen teknizismoak saihestuko dira. Informazio zehatza izango du, 9. artikuluan zehazten diren proposamenak baloratzeko irizpideak baloratzearen. Gehienez 8 orriko luzera gomendatzen da.

Laguntza bakoitzak **memoria espezifiko** bat behar du, eta baliteke dagokion kapituluan zehaztuko den **dokumentazio gehigarria** ere behar izatea.

Deialdi honen barruan onartutako edo ebaluatzen hasitako proiektu baterako, proiektu horri lotutako beste laguntza bat eskatu ahal izango da. Kasu horretan, honakoak gehitu beharko dira:

- a) Eskaera-orria ("Eskaera" eranskina).
- b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean egoteari buruzko egiaztatze dokumentazioa.
- c) Dokumentazio tekniko: laguntza bakoitzaren kasuan baliteke dagokion kapituluan zehaztuko den **dokumentazio tekniko eta ekonomiko gehigarria** behar izatea.

Donostia Sustapenak zuzenean lortuko du zerga-betebeharrak beteak izateari buruzko egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bidez (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa), bai eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren historikoa ere (altak, bajak, aldaketak, jarduera-epigrafeak), Gipuzkoako Foru Ogasunak emana.

Dirulaguntza eskatzeko eta ordainketak egiteko unean Udal Zerga Bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden erakundeek egunean daudela egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak berriaz egin ahal izango dio aurka Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzeari. Aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu:

- Laguntza eskatzen duen enpresak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Jarduera ekonomikoei buruzko agiri eguneratua —Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako historikoa—, laguntza eskatu duen enpresari buruzkoa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntzaren eskatzaileak harekin zorrik ez duela egiaztatzen duena.

Onuradunak bere gain hartzen du erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa.

## 8. ARTIKULUA. ESKAERETAKO AKATSAK KONPONTZEA

Donostia Sustapenak dokumentazio guztia berrikusi, eta ikusten badu ez dela bete edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo beharrezko dokumentuak aurkezteko; eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaera hori baztertu egingo dela, beste izapiderik egin gabe, eta, ondorioz, horri buruzko ebazpena emango dela. Administrazio dokumentazioa zuzendu ahal izango da, bai eta kasuan kasuko laguntza motarako dokumentazio espezifikoa ere. Donostia Sustapenak proiektuaren memoriari buruzko argibideak eskatu ahal izango ditu, egoki baderitzo.

Onuradunak harremanetarako ematen duen helbide elektronikoaren (jakinarazpenetarako helbide elektronikoaren) bidez jakinaraziko dira zuzenketak. Jakinarazpenak web aplikazioan ere egongo dira eskuragarri, espedientearen barruan.

Akatsak zuzentzeko eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko erabili zen bide bera erabiliz aurkeztuko da. Ez da onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik.

Laguntzak emateko edo ukatzeko, Donostia Sustapenak berriarazko ebazpena emango du, eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak web aplikazioan ere egongo dira eskuragarri, espedientearen barruan.

## 9. ARTIKULUA. LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Eskaerak sarrera-erregistroko ordenaren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, laguntza bakoitzerako baliabide ekonomikoak agortu arte.

Aurkeztutako proiektu guztiak honela ebaluatuko dira:

- Proiektuari buruzko balorazio orokorra, laguntza guztiei dagokienez (eranskina: “Memoriaren gidioa”), gehienez 70 puntu, eta gutxienez 55 lortu behar dira proiektua onar dadin.
- Balorazio espezifikoa, laguntza mota bakoitzean aurreikusien arabera. Laguntza mota bakoitzerako ebaluazio irizpideak dagokien atalean zehazten dira.

Proiektu bat onartzeko eta kasuan kasuko laguntzaren ebaluaziora igarotzeko, 55 puntuko gutxienerako puntuazioa gainditu beharko du balorazio orokorrean.

Tokiko proiektuak izan beharko dute, eta ezaugarri hauetakoren bat:

- Balio diferentzial bat egungo merkatu edo gizartearekiko.
- Teknologia, jakintza eta/edo berrikuntzaren erabilera intentsiboa.
- I+G proiektuak izatea.
- Produktu eta/edo zerbitzu berri eta erabilgarriak.
- Egungoak baino eraginkorragoak diren prozesu edo negozio ereduak, gure hiriaren garapen sozioekonomikoan eragin handiagoa dutenak.
- Profil kualifikatuak eskatzen dituzten eta balio erantsi handiko profil profesional berriak garatzen dituzten proiektuak.

Proiektuak ebaluatzeko, honako balorazio irizpide hauek segituko dira:

<b>1. Balorazio teknikoa</b>	<b>65</b>
1.1 Proiektuaren diseinu eta kalitatea:	10
1.2. Proiektuaren bideragarritasuna eta eraginkortasuna: helburuak, adierazleak, garapen tekniko, komertzial eta finantzarioaren eta giza kapitalaren deskripzioa.	40
1.3. Proiektuaren garapen jasangarria: jasangarritasun ekonomiko, sozial eta/edo ingurumenekoetan oinarrituta.	5
1.4 Proiektuaren inpaktu potentziala: lehiakortasun posizionamendua, nazioarteko proiektzioa, enplegu sorrera.	10
<b>2. Hiriarekiko lotura:</b>	<b>5</b>
<b>Donostia Sustapenak definitutako ildo eta sektore estrategikoak</b>	
<b>PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA GUZTIRA</b>	<b>70</b>

Donostia Sustapena harremanetan jarri ahal izango da gutxieneko puntuazio hori gainditzen ez duten baina 50 puntu edo gehiago lortzen dituzten proiektuak dituzten eskatzaileekin, proiektua behar bezala ulertzen duela egiaztatzeko.

Salbuespen gisa, Ekin+ eta Ekin+ Osasuna (2021ko eta 2022ko deialdian eraturako enpresa) programan onartutako proiektuak laguntza bakoitzaren balorazio espezifikoan baino ez dira ebaluatu beharko, eta proiektuaren balorazioa onartutzat joko da ("Memoria teknikoa" eranskina). Ekin+ eta Ekin+ Osasuna (2021ko eta 2022ko deialdian pertsona ekintzailea) izanez gero, "Bonu teknologikoa" (4. kapitulua) programako laguntzetarako sarbidea baino ez da izango.

Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko epea lau hilabetekoa izango da, eskaera erregistratzen den egunetik zenbatzen hasita; epe horren barruan ez dira zenbatuko administrazio agiriak zuzentzeko epeak. Laguntza emateko ebazpena ez bada ematen ezarritako epean, horrek ez du esan nahiko laguntza eman denik.

Eskaera ebazteko unean, Donostia Sustapenak berrikusi egingo du aurkeztutako nahitaezko dokumentazioa. Eskatu gabe aurkeztutako beste edozein dokumentazio ez da zertan berrikusi laguntza ebazteko.

Laguntza emateko edo ukatzeko, Donostia Sustapenak berriazko ebazpena emango du.

Ebazpenak posta elektronikoki bidez jakinaraziko zaizkio eskatzaileei, "Eskaera" eranskinean "Jakinarazpenetako helbide elektronikoa" gisa emandako helbide elektronikoa; web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, espedientearen barnean. Eta onuradun zerrendak argitaratuko dira. "Talentu berritzailea" laguntzen kasuan, pertsona onuradunen zerrenda sartu egingo da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamenduaren (EB) 115. artikuluko 2. apartatuan jasotzen den zerrenda publikoan.

Emandako ebazpenarekin ados egon ezean, alegazioak aurkeztu ahal izango dira, gehienez ere ebazpen honen datatik hilabeteko epean. Horretarako, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko da, hark adieraziko baititu alegazioak tramitzeko jarraitu beharreko prozedurak. Donostia Sustapenak erabakitzen duenera joko da, eta, hala badagokio, Donostiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mendean jarriko dira alderdi biak.

## **10. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO GASTUAK, JUSTIFIKAZIOA ETA LAGUNTZAK ORDAINTZEA**

Diruz laguntzeko gastutzat hartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak eta oinarri hauetan dirulaguntzetarako ezarritako epean egiten direnak. Diruz laguntzeko gastuen eskuratze kostua ezingo da, inoiz, merkatuko balioa baino handiagoa izan.

Diruz laguntzeko gastuei DLOren 31. artikulua aplikatuko zaie, berriazko bidaltzearen indarrez.

Diruz lagundu daitezkeen gastuen justifikazioa eta laguntzen ordainketa laguntza mota bakoitzari dagozkion kapituluetan jasotzen dira. Nolanahi ere, laguntza mota bakoitza (1., 2., 3., 4., 4.1, 4.2, 4.3, 4.4, 4.5, 4.6 eta 4.7 kapituluak) justifikatzeko ezarritako epea igarotzen bada dagokion dokumentazioa aurkezteke, Donostia Sustapenak pertsona onuradunari eskatu ahal izango dio gehienez ere jakinarazpen horretatik 15 egun naturaleko epean dokumentazio hori aurkezteko. Epe berri hori igaro eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ez bada, ulertuko da laguntza ezetsi egin dela eta, beraz, kobratzeko eskubidea galdu dela, edo, hala badagokio, jasotako zatia Donostia Sustapenari itzuli beharko zaio.

Justifikazioa dagoeneko egindako ordainketak baino txikiagoa bada, dagokion zatia itzultzeko eskatuko da.

## 11. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen onuradunek beren gain hartuko dituzte Dirulaguntzen Lege Orokorren 14. artikuluan jasotako betebeharrak –lege hori aplikagarri jotzen da, berariaz, ondorio horietarako–; tartean izango dira (zerrenda enuntziatiboa da, ez mugatzailea) honako betebeharrak hauek:

- a) Laguntza diruz lagundutako jarduerak egitera bideratzea.
- b) Aurkeztutako proiektu eta eginkizunetarako baldintzak errespetatzea eta betetzea, Donostia Sustapenak bestelakorik berariaz baimendu ezean, pertsona kontratatuak proiektuarekin eta eginkizunekin duen loturarekin batera.
- c) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduan eta epean.
- d) Jasotako laguntzen aplikazioa justifikatzen duten agiriak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskapen jardueren xede izan baitaitezke, eta, betiere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean.
- e) Proiektuaren xede diren jardueren gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilizatzea.
- f) Kontabilitate liburuak behar bezala eramatea, onuradunak horretara behartuta daudenean.
- g) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- h) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar subjektibo zein objektiboren aldaketa jakinaraztea Donostia Sustapenari, inguruabarretik 15 egun naturaleko epean gehienez ere.
- i) Emandako laguntzei buruz Donostia Sustapenak, bere eginkizunak betez, eskatzen duen informazio guztia ematea.
- j) “Talentu berritzailea” (1. kapitulua) eta “Tokiko talentua itzultzea” (2. kapitulua) laguntzen baterako finantzatzaile aipatzea Donostia Sustapena, laguntza horien xede diren proiektuen sustapen eta zabalkunde jarduketetan, haren irudi instituzionala zein dagokion legenda sartuz egiten diren komunikazio euskarrietan (web orria, kartelak, emailingak, etab.).
- k) “Talentu berritzailea” (1. kapitulua) eta “Talentu lokala itzultzea” (2. kapitulua) laguntzen kasuan, pertsona kontratatuari aditzera ematea dirulaguntzaren xede den kontratazioak Donostia Sustapenaren baterako finantzaketa duela, eta pertsona kontratatuari buruzko beharrezko datuak biltzen laguntzea.
- l) Laguntzen xedearren jarraipena egitearren Donostia Sustapenak deitzen dituen bileretara joatea.
- m) Parte hartzea jasotako laguntzari loturik Donostia Sustapenak deitzen dituen jardunaldietan (proiektu aurkezpenak, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.).
- n) Donostia Sustapenarekin lankidetzan aritzea hark egin ditzakeen finantza-kontrolako eta egiaztapeneko jarduketetan, hala badagokio, eta eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia haren esku jartzea.
- o) Laguntzaren xede den jardueran aritzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- p) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea, eta baita laguntza mota bakoitzeko baldintza espezifikoak ere.
- q) Helburu eta epe bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, horren berri ematea Donostia Sustapenari.

- r) Baimena ematea Donostia Sustapenari, enpresen eta I+G+b-ko eragileen direktorio digitaletan argitaratzeko onuradunak trafiko ekonomikoan erabiltzen dituen harremanetarako datuak, jarduera, merkataritzako izena, logoa, marka eta beste edozein ikur bereizgarri. Horretarako, elementu horien gaineko erabilera eta ustiapen lizentzia emango dio onuradunak Donostia Sustapenari, adierazitako helburuetarako soilik, eta hark modu baketsuan erabiliko duela bermatuko du.
- s) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanaz) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, emailing-ak, megafonia, etab.), sustapen eta zabalkunde materialen edizioan, jardunaldi eta ekitaldi antolatuetako hizkuntzan eta abarretan.
- Onuradunek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari, testuak itzultzeko eta zuzentzeko (gehienez 1.000 karaktereko itzulpenak hilabeteko, eta 9.000 karaktereko zuzenketak), betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira  
(<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>)

## 12. ARTIKULUA. ITZULTZEA

Onuradunak, pertsona fisiko edo juridikoak, jasotako laguntza ekonomikoa itzuli beharko du, dagokion diruaren legezko interesarekin batera –jarritako zenbatekoak ordaindu diren unetik aurrera–, honako kasu hauek gertatzen badira:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu larrian eta/edo behin eta berriz ez betetzea. Honako hauek joko dira ez-betetze larritzat eta/edo errepikatutzat: oinarri hauetako betebeharren bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako edozein datu, ziurtagiri, txosten edo dokumentazio faltsua izatea edo faltsutzea; eta/edo oinarri hauen esparruan jasotako laguntza osoa edo zati bat desbideratzea aurreikusitakoez bestelako helburu baterako.
- Laguntzaren xedea oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra ez betetzea, eta justifikazioa nahikoa ez izatea.
- Onuradunaren jardueraren gainean egin daitezkeen egiaztatze eta ikuskatze jarduketei aurka egitea, aitzakiak jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitate, erregistro edo dokumentu kontserbazioko betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta, horren ondorioz, ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik helburu bererako jasotako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak ere badirela.
- Jarduera gainfinantzatuz gero, gainfinantzaketaren zenbatekoa itzuli beharko da.
- Kontratua deuseztatzea, horretarako arrazoiak ez direnean objektibotzat hartzen, edo enplegatzailearekin zerikusirik ez dutela jotzen ez denean. Oinarri hauetako 18. eta 24. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzen direnean izan ezik.

Aurrekoa kontuan hartuta, laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzen diren baldintzak une oro bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak laguntzak itzultzea



eskatu ahal izango du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze larrienen kasuan, hala nola datuak faltsutzean edo jasotako laguntza osoa edo zati bat desbideratzean, Donostiako Sustapena SAK ahalmena izango du emandako laguntza baliogabetzeko eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztiak itzuli edo ordain dakizkion, eta, gainera, jasotako zenbatekoa halako bost ordaintzeko eskatu ahal izango du.

Donostia Sustapena SAK egiaztatzen badu, eta ondoren deskribatzen diren baldintzetan onuradunari jakinarazten badio, oinarri hauetan ezarritako arrazoietakoren bat gertatzen dela, laguntza itzuli beharko da.

Itzulketa laurogeita hamar egun naturaleko epean egin beharko da, Donostiako Sustapena SAK, burofax bidez, onuradunari artikulua honetan aurreikusitako itzulketa-kausaren bat gertatzen dela jakinarazten dion unetik zenbatzen hasita.

Era berean, eta aurreko paragrafoetan ezarritakoaz gain, Donostia Sustapena SAK eskubidea izango du, BI (2) URTEKO epean zehar, Donostiako Sustapena SAK eskainitako beste edozein laguntza edo onuratan parte hartzea galarazteko oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat zabarkeriaz bete ez duten edo erakutsi duten jokabideak fede onaren arauak urratu dituen pertsona fisiko edo juridikoei.

### **13. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA**

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat, oinarri hauetan araututako laguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie ezen eskaeraren bitartez ematen dituzten datu pertsonalak, eta laguntzak ematea onartu ondoren horiek izapidetzeko eta/edo kudeatzeko unean aurkezten dituzten agiriak Donostiako Udalak jasoko dituela, horien tratamenduaren arduradun gisa arituko baita, eta Donostia Sustapenak kudeatuko dituela, tratamenduaren eragile arituko baita. Tratamenduaren xedea eskaera kudeatzea eta aipatutako laguntzak izapidetzea izango da.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua da, pertsona fisikoen babesari buruzkoa datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez (DBEO): tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa).

Oinarri hauetan edo dagozkion eskaera-inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea nahitaezkoa izango da, eta daturik ez emateak edo datu okerrak emateak ezinezko egingo dute eskaera kudeatzea.

Datu biltzearen helburua betetzeko eta helburu horren eta datuen tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira datuak.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie laguntza horiek kofinantzatzen dituzten eta/edo laguntzen kudeaketan Donostia Sustapenarekin elkarlanean ari diren erakunde nazionalai edo nazioz gaindikoei, betiere beharrezkoa bada eta soilik laguntza horiek ematea kudeatzeko.

Era berean, aditzera ematen da laguntzak emateak berekin ekarriko duela onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera Donostia Sustapenaren web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko baitira; Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko argitalpenari dagokionez, emandako laguntza 3.000 eurotik gorakoa denean baino ez da egingo edo, zenbatekoa gorabehera, argitaratzea galdagarria denean.

Bidezko denean, ukitutako pertsonen datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, baita datuak babesteko indarrean dagoen araudian jasotako beste eskubide batzuk ere, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuaren aurrean (Easo kalea 41, 20006 Donostia).

Pertsonaren bati, dagozkion eskubideak baliatzean, ez bazaio behar bezalako arreta eman, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz). Hala ere, lehen auzialdian, Datuak Babesteko Atalaren Donostiako ordezkariaren aurrean aurkeztu ahal izango du erreklamazioa: [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).

Ondorio horietarako, erasota uzten da eskatzaileak, dagokion eskaera aurkeztuta, berariaz baimentzen dituela aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondoriozko jakinarazpenak edo datu lagapenak.

## **14. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA**

### Indarrean sartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez iragarriko dira, eta han argitaratu eta biharamunean sartuko dira indarrean.

Pertsona interesdunek eskaera aurkezteak oinarriak goitik behera onartzea dakar.

### Erantzukizunetik salbuestea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo ekintzen ondorioz edo jardueraren beraren ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horientatik.

## 15. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzek oinarri hauetan jasotako arauak izango dituzte lege. Osagarri gisa, DLOn eta hura garatzeko erregelamenduan (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, DLOren Erregelamendua —aurrerantzean, DLOE— onartzen duena) jasotako arauak aplikatuko dira, baina bakar-bakarrik DLOn jasotzen diren kudeaketa printzipioei eta 20. artikuluan aipatzen dituen informazio printzipioei dagokienez, hain zuzen aplikazioa ezartzen duen legearen 3.2 artikulua jasotzen duen moduan.

Bestela, DLO eta DLOE lege testuak oinarriok horietarako berariazko igorpenak egiten dituztenean baino ez dira aplikatuko.

Donostian, 2022ko Ekainaren 2an

**Marisol Garmendia Beloqui.**

Ekologia, Osasun Publiko, Garapen Ekonomiko eta Enpleguko zinegotzi ordezkaria.

## 1. KAPITULUA: TALENTU BERRITZAILEA LAGUNTZAK

Donostiako Sustapenak, tokiko proiektu berritzaileak garatzeko eta bultzatzeko funtsezko elementua den talentu kualifikatua garatzen, atxikitzen eta erakartzen laguntzeko estrategian, “Talentu berritzailea” laguntzak planteatzen ditu, **DSS2022ko Ekonomia Bultzatzeko Planaren** esparruan.

### 16. ARTIKULUA. TALENTU BERRITZAILEA LAGUNTZAREN XEDEA

**Goi mailako prestakuntza akademikoa** duten eta langabezian dauden **35 urtez azpiko gazteak** (kontratazio datan) kontratatzea sustatzea **enpresa proiektu berritzaileak eta I+G-koak garatzen ari diren toki erakundeetan**.

Laguntza horien helburua da kontratatutako pertsonak erakunde eta proiektuetan sartzea, erakunde horientzat giltzarria den jarduera berritzaile horri ezagutzazko ekarpena egiteko.

Garatu beharreko proiektuak eta jarduerak profil kualifikatuak hartzen dituzten enpresen lehiakortasunaren hobekuntzara bideratuta egongo dira, bereziki honako esparru hauetan:

- **Komertzializazioa:** enpresaren jarduera komertziala garatzera eta finkatzera zuzendutako proiektuak, honako jarduera hauek jorratuz horretarako: salmenta-katalogoak garatzea, bezero potentzialak identifikatzea, egungo bezeroak fidelizatzea, merkatua aztertzea, merkatu berriak erakartzeko sustapen eraginkorrak definitzea, eskuragarri dauden eskaintzen komunikazioa hobetzeko proiektuak, etab.
- **Nazioartekotzea:** atzerriko merkatuetan enpresaren jarduera garatzera eta/edo finkatzera zuzendutako proiektuak, honako jarduera hauek jorratuz horretarako: enpresentzako merkatu estrategikoen azterketak, nazioarteko merkatu berrietara irekitzeko jarduera-planen diseinua, nazioarteko bezeroen prospekzioa, produktua eta/edo zerbitzua eskarira egokitzea, produktu eta/edo zerbitzu berriak garatzea merkatu berriaren ezaugarrien arabera...
- **Finantzaketa:** enpresaren egitura ekonomiko-finantzarioa hazteko eta/edo horri egonkortasuna emateko proiektuak, honako jarduera hauek jorratuz horretarako: enpresen finantza-saila/arloa sendotzea, finantzaketa-iturriak (tradizionalak eta alternatiboak) identifikatzea, enpresaren proiektuetarako finantzaketa-formula eta -mekanismo berrien egokitzapenaren azterketa, finantzaketa-txandak eskuratzeko proiektu estrategikoak prestatzea, etab.
- **Berrikuntza:** enpresan negozio, produktu edo zerbitzu berriak sortzen dituzten jardueraildo berriak garatzeko proiektuak, honako jarduera hauek jorratuz horretarako: hausnarketa prozesuak eta egungo produktu edo zerbitzuak birbideratzekoak. Teknologia eta ezagutzaren transferentziarako proiektu estrategikoak edo negozio ereduak aztertzeko prozesuak, teknologiak eta ezagutza merkatura egokitzearren. Arreta berezia eskainiko zaie gizarte berrikuntza garrantzitsua ahalbidetzen duten edo berrikuntza hori txertatua duten proiektuei.

## 17. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA TALENTU BERRITZAILEA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Donostia Sustapenak 220.000 (BERREHUN ETA HOGEI MILA) euro bideratuko ditu “Talentu berritzailea” programara. Zenbateko hori aldatu ahal izango dira Donostia Sustapenak hala erabakiz gero.

Proiektu bakoitzeko kontratazio bakarrari eman ahal izango zaio laguntza, eta gehienez proiektu bat izango da enpresako.

**Laguntzaren zenbatekoa**, laguntzaren eskaeran adierazitako kontratazioaren iraupenaren eta lanaldiaren arabera ezarria, honakoa izango da:

- **10.000 €**, % **100eko lanaldia duten 6 hilabeteko edo gehiagoko** kontratuak diruz laguntzeko.
- **7.500 €**, gutxienez % **75eko lanaldia duten 6 hilabeteko edo gehiagoko** kontratuak diruz laguntzeko.

Laguntza % **10 gehitu ahal izango da**, kontratatutako pertsona emakumezkoa bada.

Laguntza % **10 gehitu ahal izango da**, pertsona kontratatuarentzat lehen lan kontratazioa bada, gizonezkoa zein emakumezkoa izan.

Gehikuntza horiek metagarriak dira. Gehikuntzak metatu ahal izango dira, baina laguntzaren zenbatekoa ezin izango da, inola ere, (HAMABI MILA) 12.000 € EURO baino handiagoa izan.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsonen kontratazioarekin zuzenean lotutakoak izango dira. Gastu horiek kontratuaren lehenengo 6 hilabetei dagozkienak izango dira. Epeak lan kontratua hasten den egunetik zenbatuko dira (aldi hautagarria), salbu eta aldi hautagarria doitzera behartzen duten ezinbesteko arrazoiak gertatzen direnean.

## 18. ARTIKULUA. TALENTU BERRITZAILEA LAGUNTZAKO KONTRATAZIOETARAKO BALDINTZAK

Kontratuak gutxienerako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) **35 urtez azpikoak izatea kontratazioaren unean.**
- b) **Unibertsitateko Goi Mailako titulazioa, Diploma edo Lizentzia edo Goi Mailako Lanbide Heziketako titulazioa** izatea. Titulazio hori atzerrian lortu bada, homologatuta egon beharko du, tituluak homologatzeari buruzko irailaren 30eko 1954/1994 Errege Dekretuaren arabera, eskaera aurkezteko epea amaitzen den unean. Prestakuntza kualifikatutzat hartu ahal izango dira sektoreko edo jarduerako prestakuntza espezifikoak diren beste batzuk. Kasu horietan, erakunde kontratatzaileak baliozkotuko

du titulazio hori, Donostia Sustapenaren adostasunarekin, garatu beharreko proiekturako eskatzen den titulazio gisa.

- a) Kontratatu beharreko pertsonak **Donostian erroldatuta egon beharko dute** kontratazioa hasi baino lehen, gutxienez lan harremana hasi aurreko egunean. Gutxienez lan harremana hasteko egunean bertan eta aurrekoan erroldatuta daudela frogatzen dutenak bakarrik izango dira baliozkoak. Erroldatzeko helbidea ezin izango da izan Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, 42. artikuluan aurreikusten duen moduan erakunde kontratatzailearekin (pertsona onuraduna) edo harekin lotutako beste edozein erakunderekin lotuta dagoen pertsona fisiko batena. Era berean, eta baldintza hau betetzeko, ez dira kontuan hartuko kontratatu beharreko pertsonak lehenago Donostian egindako erroldatzeak, arrazoia dena dela eten direnak.
- c) **Langabezian egotea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egotea.** Izena emandako eguna lan harremana hasi baino lehenagokoa izango da. Langabeek ez dute Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean edo Langile Autonomoen Erregimen Berezian langile gisa alta emanda egon behar, gutxienez lan harremana hasi aurreko egunaz geroztik.
- d) Kontratututako pertsona ez izatea onuradunaren ezkontidea, izatezko bikotekidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera) edo bigarren mailako aurreko, ondorengo edo alboko ahaidea (harreman horren jatorria ahaidetasuna, odolkidetasuna, ezkontza-ahaidetasuna, izatezko bikotea eratzea edo adopzioa izan), ez eta onuradunari lotutako pertsona ere Gipuzkoako Zergei buruzko 2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, 42. artikuluko 3. apartatuan jasotzen dituen baldintzetan.

Lan kontratuak gutxienezko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Lan kontratuaren hasiera **2022ko Urtarrilaren 1etik 2023ko Otsailaren 28ra** bitartean izango da (lan kontratuaren hasiera data).  
Langilea kontratatzeko gehienezko epea **bi hilabetekoa izango da, laguntzari buruzko ebazpena ematen den egunetik hasita**. 2022ko Abenduaren 31z geroztik emandako ebazpenen kasuan izan ezik, kasu horretan gehienezko epea 2023ko Otsailaren 28ra mugatuko baita, non eta, zergati arrazoituengatik, Donostia Sustapenak ez duen berariaz beste hasiera-dataren bat baimentzen.
- b) Bi alderdiek sinatutako kontratuan jasoko den soldata (eurotan) gutxienez **18.000 eurokoa izatea urtean**, % 100eko lanaldi baterako, eta **13.500 eurokoa urtean**, gutxienez % 75eko lanaldi baterako.
- c) Kontratuak laguntzaren xede den lanaldia errespetatuko du. Eta kontratazioek dirulaguntzaren xede den nahitaezko iraupen osoari eutsi beharko diote.
- d) Lan harremana lehenengo bi hilabeteetan amaitzen bada, onuradunek beste pertsona bat kontratatu beharko dute hilabeteko epean (non eta, zenbait arrazoi dela medio, Sustapenak ez duen berariaz beste hasiera-data bat baimentzen), eta kontratazioari eutsi beharko diote oro har diruz lagundutako iraupenera iritsi arte. Ordezkapen bakarra



onartuko da laguntzako. Kontratazioak 6 hilabete baino gutxiagoko epean amaitzen badira eta proiektua aldi horretan zehar beste bitarteko batzuekin mantentzen bada, benetan gauzatutako kontratazio aldiaren zati proportzionala ordainduko da. Epe horren barruan proiektua uzten bada, laguntza osorik itzultzeko eskatuko da.

- e) Bermatu egingo da kontratatutako pertsonen proiektuari egokitutako harrera jasotzea “Talentu berritzailea” programaren erakunde onuradunaren barruan. Harrera-plan horrek proiektuaren jasangarritasunari buruzko prestakuntza-pilula bat izan beharko du.

**Ez dira diruz lagunduko** kontratazio hauek:

- Laguntza eskatu ondoren egindako kontratuen luzapenak.
- Kontratu baturak. Dirulaguntzaren xede den laguntza bakoitzerako kontratu bakarra onartuko da.
- Lanaldia aldatu zaien kontratuak, non eta ez diren hasieran kontratatutako lanaldiaren goranzko aldaketak.
- Kontratazioaren dataren aurreko 24 hilabeteetan enpresa berean lan egiten zuten pertsonekin egindako kontratazioak, edo beste enpresa batean lan egiten zutenekin egindakoak, enpresa bietan % 25eko partaidetza daukaten bazkide komunak dauden kasuan.

## 19. ARTIKULUA. TALENTU BERRITZAILEA LAGUNTZARAKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

7. artikuluan deskribatuaz gain, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

Memoria bat, sortzen den enplegu aukera deskribatzearen, **“Talentu berritzailea. Memoria”** eranskinari jarraiki eta ondoren adierazten den moduan:

- 1 Eskatutako profilararen deskripzioa.
- 2 Sortutako enplegu aukeraren deskripzioa:
  - Iraupena, lanaldi mota, harrera, jarraipena, barne garapena.
  - Aurreikusitako gutxi gorabeherako urteko soldata gordina.
  - Kontratuaren gaitasunak garatzeko aukera.
  - Lanpostuaren eta kontratuaren proiektzioa eta jasangarritasuna.
  - Beste osagarri batzuk: soldata aldetikoak, prestakuntza espezializatua, barne sustapena...
- 3 Kontratuaren tutorearen izena eta eginkizunak.
- 4 Hautaketa prozesuaren egutegia, honakoak adierazita:
  - Hautaketa prozesurako erreferentziatzeko pertsona.
  - Eskaintzak argitaratzeko gutxi gorabeherako datak.
  - Jasotako curriculumak aztertze datak.
  - Elkarrizketak egiteko datak.
  - Hautaketa prozesua ixteko data.
  - Egingo den kontratazioaren edo kontratazioen datuak.
- 5 Kontratuarentzat aurreikusitako Harrera Plana, horretan sarturik enpresaren funtzionamendua, jarduera, eta kontratuak parte hartuko duen proiektua, garapen ekologiko zein ekonomiko eta sozial jasangarriaren kontzeptuari eta garrantziari buruzko sentsibilizazio atal batekin batera.

Onuradunak bere gain hartzen du erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa.

## 20. ARTIKULUA. TALENTU BERRITZAILEA LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

“Talentu berritzailea” laguntzarako eskaerak baloratuak izateko, horretarako proiektuek (memoria deskriptibo tekniko eta ekonomia, “Memoria teknikoa” eranskina) eskatzen den gutxieneko puntuazioa (9. artikulua) lortu behar dute.

“Talentu berritzailea” laguntzarako eskaera onartua izan dadin, **gutxienez 15 puntu** jaso beharko ditu ondoren adierazten den balorazio espezifikoan.

<b>Enplegu sortuaren proposamenaren balorazio teknikoa</b>	
Enplegu proposamenaren kalitatea: iraupena, harrera, jarraipena, barne garapena	10
Kontratuaren gaitasunak garatzeko aukera	5
Lanpostuaren eta kontratuaren proiektzioa eta jasangarritasuna	10
Beste neurri osagarri batzuk: soldata aldetikoak, prestakuntza espezializatua, barne sustapena...	5
<b>Puntuazioa guztira</b>	<b>30</b>

## 21. ARTIKULUA. TALENTU BERRITZAILEA LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Laguntzak bi zatitan ordainduko dira.

**Lehenengo zatia (emandako zenbatekoaren % 70)** ordaintzeko, ondoren eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- “**Kontratazio datuak**” eranskina.
- **Lan kontratuaren** kopia, alderdi biek sinatua eta orri guztiak dituena. Honako baldintzak egiaztatu beharko ditu: iraupena, lanaldia, lantokia, beteko den lanpostua eta ordainduko den urteko soldata gordinaren zenbatekoa (eurotan).
- **Lan kontratuaren jakinarazpena.**
- **Kontratuaren NAN / AIZren** kopia.
- “**Inskripzio epeen txostena**” dokumentua, Lanbidek emana. Dokumentua eman den datak kontratazioaren hasieraren ondorengo izan behar du.
- **Langilearen Lan Bizitza osoa**, Gizarte Segurantzak emana, laguntza eskatzen den kontratua hasi ondorengo data batean emana (ez da onartuko enpresaren lan bizitarik).
- Kontratuaren subjektuaren **errola-ziurtagiria**, Donostiako Udalak emana, kontratazioaren eguna baino geroagokoa, edo ziurtagiria eskatzearen Donostia

Sustapenari emandako baimena, kontratatutako pertsonak emana (“Kontratazio datuak” eranskinean sartua).

- Kontratuaren curriculum vitae.
- Kontratuaren titulazio akademikoaren kopia.

#### LEHEN ORDAINKETARAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA:

Laguntza ebatzi aurretik egindako kontratazioek gehienez hilabeteko epea izango dute, ebazpena ematen den egunetik aurrera, aipatutako dokumentazioa aurkezteko.

Laguntza ebatzi ondoren egindako kontratazioek gehienez hilabeteko epea izango dute, kontratazioaren egunetik aurrera, aipatutako dokumentazioa aurkezteko.

**Bigarren ordainketa (gainerako % 30a)** egindako kontratazioaren azken justifikazioaren ondotik egingo da.

#### BIGARREN ORDAINKETARAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA:

Lehen ordainketaren komunikazioaren jakinarazpenean azken justifikazioa aurkezteko epea adieraziko da:

- Kontratuaren epe diruz lagungarria igaro ondoren, hau da, kontratuaren hasieratik 6 hilabetera (ordezkapenen kasuan ez da zenbatuko 2 kontratuen artean igarotzen den denbora), **gehienez ere bi hilabeteko epea** izango da.
- Diruz lagundu daitekeen epea dagoeneko amaituta baldin badago jakinarazpen horren datan, gehienez ere bi hilabeteko epea izango da, jakinarazpenetik aurrera.

Onuradunak honako dokumentazio hau aurkeztu behar du:

- **Eranskina: “Talentu berritzailea. Justifikazioa”.**
- **Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua**, betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- **Amaierako memoria**, programaren bitartez abian jarritako proiektuaren edo jardueraren garapena deskribatzen duena (“Amaierako memoria” eranskina).
- Kontratatutako pertsonaren **“Afiliatu baten lan bizitzaren txostena”**, laguntzaren xede den aldian eta lanaldian zehar enpresan egon dela egiaztatzen duena.
- Kontratatutako pertsonaren Kotizaziorako Datuak – Besteren Konturako Langileak txostena (**KDT**), justifikazio epea jasotzen duena.

Kasu bietan, dokumentazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da. Ez da onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik. Era berean, eranskin guztiak oso-osorik bete beharko dira.

Donostia Sustapenak zuzenean lortuko du zerga-betebeharrak beteak izateari buruzko egiaztapena, ziurtagiri telematikoaren bidez (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa).

Dirulaguntza eskatzeko eta ordainketak egiteko unean Udal Zerga Bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden erakundeek egunean daudela egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak berriaz egin ahal izango dio aurka Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzeari. Aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu:

- Laguntza eskatzen duen enpresak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntzaren eskatzaileak harekin zorrik ez duela egiaztatzen duena.

## 2. KAPITULUA: TOKIKO TALENTUA ITZULTZEA LAGUNTZAK

Donostiako Sustapenak, tokiko proiektu berritzaileak garatzeko eta bultzatzeko funtsezko elementua den talentu kualifikatua garatzen, atxikitzen eta erakartzen laguntzeko estrategian, “Tokiko talentua itzultzea” laguntzak planteatzen ditu, **DSS2022ko Ekonomia Bultzatzeko Planaren** esparruan.

### 22. ARTIKULUA. TOKIKO TALENTUA ITZULTZEA LAGUNTZAREN XEDEA

**Atzerrian edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi diren donostiar kualifikatuen itzulera sustatzea, ezagutzan eta berrikuntzan oinarrituta dauden eta hiriaren etorkizuneko garapenean eragina duten toki erakundeen proiektuetan sartuz horretarako.**

Horrela, eta **merkatuan profesional donostiarrak atzera sartzea** lortzearren, estrategiko irizten zaio horrelako profilak hartzen dituzten enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako proiektu berritzaileak garatzen laguntzeari.

### 23. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA TOKIKO TALENTUA ITZULTZEA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Donostia Sustapenak (EHUN ETA BOST MILA) 105.000 euro bideratuko ditu “Tokiko Talentua Itzultzea” programara. Zenbateko hori aldatu ahal izango dira Donostia Sustapenak hala erabakiz gero.

Proiektu bakoitzeko kontratazio bakarrari eman ahal izango zaio laguntza, eta gehienez proiektu bat izango da enpresako.

**Laguntza gehienez 25.000 eurokoa izango da, gutxienez 12 hilabeteko eta % 100eko lanaldiko kontratuatarako.**

Laguntza **% 10 gehitu** ahal izango da, kontratatutako pertsona emakumezkoa bada.

Kontratazio bakoitzean ordaindu beharreko laguntzen azken zenbatekoa enpresak benetan jasan eta ordaindutako diruz laguntzeko moduko gastuen benetako kostuaren % 100 izan daiteke, gehienez ere.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsonen kontratazioarekin zuzenean lotutakoak izango dira, hala nola: **soldata** (dieta kontzeptua kontuan hartzeke) **eta enpresaren kargurako Gizarte Segurantza**, lan kontratua hasi eta lehenengo 12 hilabeteetakoak (epe hautagarria).

### 24. ARTIKULUA. LAGUNTZAKO KONTRATAZIOETARAKO BALDINTZAK

Kontratatuek gutxienerako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) **Unibertsitateko Goi Mailako titulazioa, Diploma edo Lizentzia edo Goi Mailako Lanbide Heziketako titulazioa** izatea. Titulazio hori atzerrian lortu bada, homologatuta egon beharko du, tituluak homologatzeari buruzko irailaren 30eko 1954/1994 Errege Dekretuaren arabera, eskaera aurkezteko epea amaitzen den unean. Prestakuntza kualifikatutzat hartu ahal izango dira sektoreko edo jarduerako prestakuntza espezifikoak diren beste batzuk. Kasu horietan, eta atzerriko titulazio bat homologazio prozesuan badago edo kontratazioaren unean homologatu gabe badago, erakunde kontratatzaileak baliozkotuko du titulazio hori, Donostia Sustapenaren adostasunarekin, garatu beharreko proiekturako eskatzen den titulazio gisa.
- b) **Donostiarekin lotura** izatea. Pertsona batek Donostiarekin lotura duela irizteko, ondoko baldintza hauetakoren bat bete beharko du:
- Donostian jaioa izatea.
  - Donostian erroldatuta egon izana gutxienez 5 urtez.
  - Titulazio ofizial bat lortu izana Donostian kokatutako fakultate eta/edo unibertsitate eskoletakoren batean.
- c) Bizilekua atzerrian edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo izatea, modu jarraituan, lan kontratua hasi **aurreko 12 hilabeteetan** zehar gutxienez. Kalkulu hori egiteko, ez da kontuan hartuko kontratua hasi aurreko hilabetea.
- d) Gutxienez lan kontratua hasi **aurreko 12 hilabeteetan Euskal Autonomia Erkidegoan lanik egin ez izana.**
- e) Kontratatutako beharreko pertsonak Donostian erroldatuta egon beharko dute kontratazioa hasi baino lehen, gutxienez lan harremana hasi aurreko egunean. Gutxienez lan harremana hasteko egunean bertan eta aurrekoan erroldatuta daudela frogatzen dutenak bakarrik izango dira baliozkoak. Erroldatzeko helbidea ezin izango da izan Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako moduan erakunde kontratatzailearekin (pertsona onuraduna) edo harekin lotutako beste edozein erakunderekin lotuta dagoen pertsona fisiko batena. Era berean, eta baldintza hau betetzeko, ez dira kontuan hartuko kontratatutako beharreko pertsonak lehenago Donostian egindako erroldatzeak, arrazoia dena dela eten direnak.
- f) **Langabezian egotea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egotea.** Izena emandako eguna lan harremana hasi baino lehenagokoa izango da. Langabeek ez dute Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean edo Langile Autonomoen Erregimen Berean langile gisa alta emanda egon behar, gutxienez lan harremana hasi aurreko egunaz geroztik.
- g) Kontratatutako pertsona ez izatea onuradunaren ezkontidea, izatezko bikotekidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera) edo bigarren mailako aurreko, ondorengo edo alboko ahaidea (harreman horren jatorria ahaidetasuna, odolkidetasuna, ezkontza-ahaidetasuna, izatezko bikotea eratzea edo adopzioa izan), ez eta onuradunari lotutako pertsona ere Gipuzkoako Zergei buruzko 2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, 42. artikuluko 3. apartatuan jasotzen dituen baldintzetan.



Lan kontratuak gutxienerako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Lan kontratuaren **hasiera 2022ko Urtarrilaren 1etik 2023ko Otsailaren 28ra** bitartean izango da (lan kontratuaren hasiera data).  
Langilea kontratatzeke gehieneko epea **bi hilabetekoa izango da, laguntzari buruzko ebazpena ematen den egunetik hasita**. 2022ko Abenduaren 31z geroztik emandako ebazpenen kasuan izan ezik, kasu horretan gehieneko epea 2023ko Otsailaren 28ra mugatuko baita, non eta, zergati arrazoituengatik, Donostia Sustapenak ez duen berariaz beste hasiera-dataren bat baimentzen.
- b) Bi alderdiek sinatutako kontratuan jasoko den soldata (eurotan) gutxienez **20.000 eurokoa izatea urtean**.
- c) Kontratuak **12 hilabete edo gehiago iraungo du**, eta **lanaldia** % 100ekoa izango da.
- d) Kontratazioa mantendu egin beharko da diruz laguntzen den epean eta lanaldi motarekin.

Lan harremana 12 hilabete baino lehen amaitzen bada arrazoi objektiboengatik edo enplegatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, Sustapenak baimendu ahal izango du langilea ordezteko edo laguntzaren zati proportzionala ordaintzea, betiere proiektua diruz laguntzeko moduko aldiari mantentzen bada beste bitarteko batzuekin. Onuradunak gehieneko 10 eguneko epean jakinarazi beharko dio Donostia Sustapenari, kontratua amaitzen denetik zenbatzen hasita, eta, gainera, Sustapenak zehazten dituen agiriak aurkeztu beharko ditu, gehieneko 10 eguneko epean, kontratua amaitzen denetik zenbatzen hasita. Langilea ez ordezkatzeko gain proiektua, diruz lagundu daitekeen epearen barnean, bertan behera uzten bada, laguntza osorik itzultzeko eskatuko da.

- e) Erakunde onuradunak bermatu beharko du kontratatutako pertsonen proiektuari egokitutako harrera jasotzea "Tokiko talentua itzultzea" programako erakunde onuradunaren barruan. Harrera-plan horrek proiektuaren jasangarritasunari buruzko prestakuntza-pilula bat izan beharko du.

**Ez dira diruz lagunduko** kontratazio hauek:

- Laguntza eskatu ondoren egindako kontratuen luzapenak.
- Kontratu baturak. Dirulaguntzaren xede den laguntza bakoitzerako kontratu bakarra onartuko da.
- Lanaldia aldatu zaien kontratuak, non eta ez diren hasieran kontratatutako lanaldiaren goranzko aldaketak.

## 25. ARTIKULUA. TOKIKO TALENTUA ITZULTZEA LAGUNTZARAKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

7. artikuluan deskribatuaz gain, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

Memoria bat, sortzen den enplegu aukera deskribatzearen, “**Tokiko talentua itzultzea. Memoria**” eranskinari jarraiki eta ondoren adierazten den moduan:

- 1 Eskatutako profilararen deskripzioa.
- 2 Sortutako enplegu aukeraren deskripzioa:
  - Iraupena, lanaldi mota, harrera, jarraipena, barne garapena.
  - Aurreikusitako gutxi gorabeherako urteko soldata gordina.
  - Kontratuaren gaitasunak garatzeko aukera.
  - Lanpostuaren eta kontratuaren proiektzioa eta jasangarritasuna.
  - Beste osagarri batzuk: soldata aldetikoak, prestakuntza espezializatua, barne sustapena...
- 3 Kontratuaren tutorearen izena eta eginkizunak.
- 4 Hautaketa prozesuaren egutegia, honakoak adierazita:
  - Hautaketa prozesurako erreferentziazko pertsona.
  - Eskaintzak argitaratzeko gutxi gorabeherako datak.
  - Jasotako curriculumak aztertze datak.
  - Elkarrizketak egiteko datak.
  - Hautaketa prozesua ixteko data.
  - Egingo den kontratazioaren edo kontratazioen datuak.
- 5 Kontratuarentzat aurreikusitako Harrera Plana, horretan sarturik enpresaren funtzionamendua, jarduera, eta kontratatuak parte hartuko duen proiektua, garapen ekologiko zein ekonomiko eta sozial jasangarriaren kontzeptuari eta garrantziari buruzko sentsibilizazio atal batekin batera.

Onuradunak bere gain hartzen du erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agiriaren egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa.

## 26. ARTIKULUA. TOKIKO TALENTUA ITZULTZEA LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

“Tokiko talentua itzultzea” laguntzarako eskaerak baloratuak izateko, horretarako proiektuek (memoria deskriptibo tekniko eta ekonomia, “Memoria teknikoa” eranskina) eskatzen den gutxienezko puntuazioa (9. artikulua) lortu behar dute.

“Tokiko talentua itzultzea” laguntzarako eskaera onartua izan dadin, **gutxienez 15 puntu** jaso beharko ditu ondoren adierazten den balorazio espezifikoa.

Enplegu sortuaren proposamenaren balorazio teknikoa	
Enplegu proposamenaren kalitatea: iraupena, harrera, jarraipena, barne garapena	10
Kontratuaren gaitasunak garatzeko aukera	5
Lanpostuaren eta kontratuaren proiektzioa eta jasangarritasuna	10
Beste neurri osagarri batzuk: soldata aldetikoak, prestakuntza espezializatua, barne sustapena...	5
<b>Puntuazioa guztira</b>	<b>30</b>

## 27. ARTIKULUA. TOKIKO TALENTUA ITZULTZEA LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Laguntzak bi zatitan ordainduko dira.

**Lehengo zatia (emandako zenbatekoaren % 70)** ordaintzeko, ondoren eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- **“Kontratazio datuak” eranskina.**
- **Lan kontratuaren kopia**, honakoak egiaztatzea: iraupena, lanaldia, lantokia, beteko den lanpostua eta ordainduko den urteko soldata gordinaren zenbatekoa (eurotan).
- **Lan kontratuaren jakinarazpena.**
- **Kontratuaren NAN / AIZren kopia.**
- **“Inskripzio epeen txostena” dokumentua**, Lanbidek emana. Dokumentua eman den datak kontratazioaren hasieraren ondorengo izan behar du.
- **Langilearen Lan Bizitza osoa**, Gizarte Segurantzak emana, laguntza eskatzen den kontratua hasi ondorengo data batean emana. Ez da onartuko enpresaren lan bizitzarik.
- **Kontratuaren subjektuaren errolda-ziurtagiria**, Donostiako Udalak emana, kontratazioaren eguna baino geroagokoa, edo ziurtagiria eskatzearen Donostia Sustapenari emandako baimena, kontratatutako pertsonak emana (“Kontratazio datuak” eranskinean sartua).
- **Kontratuaren curriculum vitae.**
- **Kontratuaren titulazio akademikoaren kopia.**
- **Kontratatutako pertsonak egoitza atzerrian edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo zuela egiaztatzen duen dokumentua**, gutxienez, aurreko 12 hilabeteetan zehar, lan-kontratu hasteko eguna baino hilabete bat lehenago zenbatzen hasita eta modu jarraituan. Donostia Sustapenak baldintza hori egiaztatzeko beharrezkotzat hartzen duen edozein informazio eta ekarpen eskatu ahal izango ditu.

### LEHEN ORDAINKETARAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA:

Laguntza ebatzi aurretik egindako kontratazioek gehienez hilabeteko epea izango dute, ebazpena ematen den egunetik aurrera, aipatutako dokumentazioa aurkezteko.

Laguntza ebatzi ondoren egindako kontratazioek gehienez hilabeteko epea izango dute, kontratazioaren egunetik aurrera, aipatutako dokumentazioa aurkezteko.

**Bigarren ordainketa (gainerako % 30a) egindako kontratazioaren azken justifikazioaren ondotik egingo da.**

### BIGARREN ORDAINKETARAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA:

Lehen ordainketaren komunikazioaren jakinarazpenean azken justifikazioa aurkezteko epea adieraziko da:

- Kontratuaren epe diruz lagungarria igaro ondoren, hau da, kontratuaren hasieratik 12 hilabetera (ordezkapenen kasuan ez da zenbatuko 2 kontratuen artean igarotzen den denbora), gehienez ere **bi hilabeteko** epea izango da.

- Diruz lagundu daitekeen epea dagoeneko amaituta baldin badago jakinarazpen horren datan, gehienez ere bi hilabeteko epea izango da, jakinarazpenetik aurrera.

Onuradunak honako dokumentazio hau aurkeztu behar du:

1. **Eranskina: “Tokiko talentua itzultzea. Justifikazioa”.**
2. **Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua**, betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
3. **Amaierako memoria**, programaren bitartez abian jarritako proiektuaren edo jardueraren garapena deskribatzen duena (“Amaierako memoria” eranskina).
4. Kontratututako pertsonaren **“Afiliatu baten lan bizitzaren txostena”**, laguntzaren xede den aldian eta lanaldian zehar enpresan egon dela egiaztatzen duena.
5. Kontratututako pertsonaren Kotizaziorako Datuak – Besteren Konturako Langileak txostena (**KDT**), justifikazio epea jasotzen duena.
6. Nominen, gizarte segurantzen eta horiei dagozkien ordainketen kopiak. (Langileak sinatutako nominekin eta ordainagiriekin balio bera dute).

Kasu bietan, dokumentazioa modu telematikoa aurkeztu beharko da. Ez da onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik. Era berean, eranskin guztiak oso-osorik bete beharko dira.

Donostia Sustapenak zuzenean lortuko du zerga-betebeharrak beteak izateari buruzko egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bidez (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa).

Dirulaguntza eskatzeko eta ordainketak egiteko unean Udal Zerga Bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden erakundeek egunean daudela egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak berriaz egin ahal izango dio aurka Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzeari. Aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu:

- Laguntza eskatzen duen enpresak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntzaren eskatzaileak harekin zorrik ez duela egiaztatzen duena.

### 3. KAPITULUA: INNPLANTA LAGUNTZAK

**DSS2022ko Ekonomia Bultzatzeko Planaren** esparruan, “Innplanta” laguntzak planteatzen dira, laguntza ekonomikoko tresna gisa, Donostiako enpresen lehiakortasuna hobetzeko ekintza estrategikoak gauzatzeko, emaitza ekonomikoetan eragin zuzena izango duten negozio aukera berriak garatzeko eta proiektu estrategiko bat garatzea ekarriko duen aholkularitza espezializaturako.

#### 28. ARTIKULUA. INNPLANTA LAGUNTZAREN XEDEA

“Innplanta” laguntzen xedea da Donostiako enpresen lehiakortasuna hobetzeko enpresa proiektu berritzaileak bultzatzea proiektu eta ekintza estrategikoen bidez. Laguntza ekonomiko bat da, bai berrikuntza edo nazioartekotze esparruetan, bai enpresen lehiakortasuna hobetzen duten garapen espezifikoen (zerbitzu espezializatuak, teknologia eskuratzea, patente berriak erregistratzea, etab.) proiektu bat ezartzeko.

#### 29. ARTIKULUA DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Donostia Sustapenak HIRUREHUN MILA (300.000) euro bideratuko ditu “Innplanta” programara. Zenbateko hori aldatu ahal izango dira Donostia Sustapenak hala erabakiz gero.

Laguntza gehienez **4.000 eurokoa** izango da.

Ekin+ eta Ekin+ Osasuna 2022 programetan parte hartzen ari diren enpresentzat edo 2021 eta 2020ko edizioetan parte hartu dutenentzat, eta eskaeraren datan Donostia Sustapenaren enpresa-zentroetan kokatuta daudenentzat, gehienezko zenbatekoa **6.000 eurokoa** izango da.

Laguntza bakarra emango da erakunde eskatzaileko.

Laguntzak **gauzatzeko epea 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31 arte izango da**. Diruz laguntzeko gastuen justifikazio ordainagirik ere epe horretakoak izan beharko dute. Justifikazio fakturak 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko otsailaren 25era bitartean ordaindu beharko dira. Fakturak osorik ordainduta egon beharko dute.

Hauek dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak eta horietako bakoitzean hartutako gastuetarako laguntzaren ehuneko edo zenbatekoa:

## 1. AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA, honako ildo hauetan:

% 70 finantzarria:

- 1.1. **Eraldaketa digitala** eta aldaketa teknologikoa.
- 1.2. **Jabetza intelektual**
- 1.3. **I+G+b proiektuak finantzatzea** CDTIren, Estatuko Ikerkuntza Agentziaren eta Europar Batzordearen deialdietan: enpresen I+G+b proiektuak, esaterako EIC Accelerator, Neotec, eta abar, hazteko.
- 1.4. **Mentoring teknologikoa**, ZTBESk aitortutako enpresa arloko I+G+b-ko unitateak dituzten enpresen bidez.
- 1.5. Proiektu berritzailearekin lotutako langileen **prestakuntza espezializatu**a, business management, diseinu eta teknologiarekin zerikusia duten gaietan, bai prestakuntza-gastuak, bai aholkularitza-gastu espezializatuak.

% 50 finantzarria:

- 1.6. Produktu eta zerbitzu berrien diseinua.
- 1.7. Antolaketa aldaketak eta enpresa kudeaketako eredu berriak.
- 1.8. Orientazio estrategikoa eta finantza aholkularitza, negozio ereduari lotua:
- 1.9. Marketin eta komunikazio digitala:
- 1.10. DonostiaINN webinar-etatik ondorioztatutakoa.

## 2. Berrikuntza adierazgarriak sartzeko INBERTSIOAK

Produktu, zerbitzu eta prozesuetan berrikuntza esanguratsuak sartzeko elementuak eta ondasunak erosteko gastuak, baldin eta berrikuntza horien ondorioz lehia-abantailak sortzen badira, bai eta produktu eta prozesuak garatzearekin, sartzearekin edo hobetzearekin eta produktu berriak sartzearekin edo egungo produktuak eta prozesuak hobetzearekin lotura estua dutenak ere:

% 70 finantzarria:

- 1.1. Informazioa prozesatzeko ekipoa erosi edo alokatzea, tresnak eskuratzea, erabilera-lizentziak eskuratzea, produktu eta prozesu berriak edo hobetuak diseinatzeke, garatzeko eta gauzatzeko tresna eta aplikazio informatikoak sartzea.
- 1.2. Jabetza industrial eta intelektual babestea: patenteak, fabrikazio prozedurak eta lizentziak.
- 1.3. Inbertsioak ekipamendu, makineria eta instalazio teknikoetan, hala nola laborategiko ekipoetan, neurketa ekipoetan eta probak eta saiakuntzak egiteko ekipoetan.
- 1.4. Ikerketako eta proiektuak garatzeko gastuak.
- 1.5. Prototipoak eta planta pilotuak eraikitzeke beharrezkoak diren material suntsikorrak.
- 1.6. Probak eta saiakuntzak egiteke beharrezkoak diren material suntsikorrak.

## 3. SUSTAPEN ETA NAZIOARTEKOTZE EKINTZAK

Ingurune birtual batean bazkideak, banatzaileak, eragileak eta bezeroak bilatzera bideratutako ekintzekin lotutako gastuak:

% 40 finantzarria:



- 3.1. Bazkideak, banatzaileak, eragileak eta bezeroak bilatzera zuzendutako ekintza digitalak: sare sozialetako eta beste hedabide batzuetako kanpainak.
- 3.2. Ferietarako bidaiak, aliantzak bilatzeko edo produktuak edo zerbitzuak ezagutarazteko.
- 3.3. Nazioarteko bulego edo ordezkariak irekitzea.

#### **4. TALENTU BERRITZAILEA 2021 eta 2022 ETA TOKIKO TALENTUA ITZULTZEA ETA ERAKARTZEA 2021 LAGUNTZETAKO LANPOSTUAK FINKATZEA**

1.500 euro, 2021eko eta 2022ko "Talentu berritzailea" eta 2021eko "Talentua itzultzea eta erakartzea" laguntzen deialdiaren bidez finantzatutako kontratuetako langile kostuen gastuetan, baldin eta proiektua gauzatzen den bitartean mantentzen badira, enplegua finkatzeko kontzeptuan, betiere langile horiek deialdi honetan onartzen diren ekintzen garapenarekin lotura badute.

Ez dira finantzatuko 2021eko eta 2022ko "Talentu berritzailea" eta 2021eko "Talentua itzultzea eta erakartzea" laguntzek finantzatutako aldiko kostuak, baizik eta gerora sortutako kostuei dagozkienak.

Aurreko paragrafoetan deskribatutako eremuren batean egindako inbertsio eta gastuen ondoriozko laguntza % 10 handituko da ekintzak zertzen dituzten erakundeek egoitza fiskala Donostian badute.

Ez da igonerarik onartuko proiektua aurkeztean eskatu ez bada.

Gastuak justifikatzeko, ez dira kontuan hartuko 100 eurotik (zergak kanpo) beherako fakturak eta frogagiriak.

Txartelarekin, banku transferentziarekin edo helbideratze ordainagiriarekin egindako ordainketen egiaztagiriak baino ez dira onartuko. Egiaztagiri horietan, egindako eragiketari buruzko informazioa jasoko da (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data eta abar), eta ez da onartuko banku mugimenduen zerrendarik. Ez da onartuko BIZUM bitartez egindako ordainketarik.

Honako gastu hauek ez dira finantzatuko:

- Enpresan ohiko edo errutinazko jarduerak egitea helburu dutenak, hau da, egungo egoerarekin alderatuta berrikuntza edo hobekuntza nabarmenik edo merkatu berriak irekitzerik ez dakartenak.
- Oinarrizko ikerketa helburu dutenak, oinarrizko ikerketatzat harturik alde aurretik helburu gisa zehaztutako aplikaziorik edo erabilerarik izan gabe ekiten zaiona; beraz, pizgarria eskuratzeko, helburu praktiko espezifiko bat eta horren enpresa-aplikazio posiblea bilatu behar dira.
- Erakundea indarrean dagoen araudira egokitzeko beharrezko jarduerak egitea.
- Enpresan lehendik dagoen aktibo finko baten (softwarea, aplikazioa, makineria, etab.) hobekuntzak.
- Web orrien garapena, non eta proiektu berritzailea eta lehiakortasunaren hobekuntza ez dauden horretara zuzenduta.

- Material erosketa berriak, ibilgetu materialeko inbertsioak... zeregin errepikariak garatzeko.
- Talde bereko enpresen artean garatutako zerbitzuak; beraz, ez da barne fakturazioko prozesurik onartzen.
- Kontabilitate, liburu edukitza, auditoretza eta aholkularitza fiskaleko eguneroko jarduerak, lehiakortasuna hobetzen duen proiektu baten garapenari lotutako aholkularitza ez denean.
- Enpresak ondoren merkaturatzen dituen merkataritza-produktuak eta/edo lehengaiak erostea, ezta laginak egiteko edo ekoizteko produktuak erostea ere.
- Ohiko material suntsikorrak eta bulegoko materiala erostea.
- Gastu arruntak eta, bereziki, hornidura gastuak, hala nola argia, ura eta komunikazioak (telefonoa eta internet).
- Interesak, errekaruak, zergak eta administrazio zehapenak.
- Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- Janari-tiketak, dietak, kilometrajea, gasolina, etab.
- Soldatak eta lansariak, goian adieraziak izan ezik (“Talentu berritzailea” 2020 eta 2021 laguntzetako kontratuak finkatzea).
- Autonomoen kuotaren ondoriozko gastuak.
- Oro har, Donostia Sustapenak baimendu gabeko gastu guztiak.

### **30. ARTIKULUA. INNPLANTA LAGUNTZAREN XEDE DEN ZERBITZUA EMATEN DUTEN ERAKUNDEAK**

Diruz lagundutako zerbitzuak edo produktuak ematen dituzten erakundeek irabazi asmoa duten enpresak izan beharko dute.

Ezin izango dira zerbitzu emaile edo produktu hornitzaile izan honakoak:

- Erakunde publikoak.
- Fundazioak eta elkarteak, irabazi asmorik ez dutenak.
- Sektore publikoko erakunde publikoen, irabazi asmorik gabeko fundazio eta elkarteen, ondare sozietateen eta/edo elkargo profesionalen mendeko edo aipatu horiek % 25 baino gehiagoko partaidetza duten erakundeak (kasu honetan, sektore publikoko erakunde publikotzat hartuko dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasotako erakundeak; lege horren bitartez, Espainiako ordenamendu juridikorako transposizioa egiten da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentarauari eta 2014/24/EB Zuzentarauari dagokienez).
- Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, 42. artikuluan aurreikusten duen eran laguntzaren xede den pertsonarekin lotura dutenak.

Salbuespen gisa, 1.4 kasuan (mentoring teknologikoa) zerbitzu emaile izan daitezke ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak arautzen duen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide diren erakundeak, baldin eta enpresaren I+G unitatea Donostian badute.

Kasu guztietan, laguntzaren xede izango den zerbitzu eskainiak bat etorri behar du enpresaren jarduera ekonomikoarekin, eta horrela islatu behar da dagokion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.

## 31. ARTIKULUA. INNPLANTA LAGUNTZARAKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

Eskaeraren unean adierazi egin beharko dira proiektuari aplikatu nahi zaizkion gehikuntzak. Ez da kontuan hartuko bakar-bakarrik laguntzaren justifikazioan adierazitako gehikuntzarik.

Eskaeraren unean, justifikazioan eskatzen den dokumentazioa ere aurkeztu ahal izango da. Kasu horretan, justifikazioa oso-osorik egin beharko da. Laguntzaren xede diren gastu guztiak jasotzen dituen justifikazio bakarria onartuko da, justifikazio partzialik ez

Beraz, bi modalitate daude eskaera egiteko:

### A) Bakarrik laguntza eskaera (justifikaziorik gabe):

Eskaera besterik aurkeztu ezean, 7. artikuluan deskribatuaz gain, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

1. “Innplanta” laguntzaren xede den jardueraren xehetasuna (“Innplanta Memoria espezifikoa. Eranskina”): deskripzioa, justifikazioa, lortu nahi den eragina, enplegua mantentzea...
2. “Innplanta” laguntzaren xede den jardueraren aurrekontu xehatua, zerbitzu/produktuaren hornitzaileak egina.
3. Laguntzaren xede den jardueraren memoria finantzarioa, excel formatuan: “Innplanta laguntzaren memoria finantzarioa. Eranskina”.

### B) Laguntzaren eskaera eta justifikazioa une berean.

Eskaerarekin batera justifikazioa aurkeztuz gero, 7. artikuluan deskribatuaz gain, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

1. “Innplanta” laguntzaren xede den jardueraren xehetasuna (“Innplanta Memoria espezifikoa. Eranskina”): deskripzioa, justifikazioa, lortu nahi den eragina, enplegua mantentzea, gastuetan laguntzen den zerbitzu garatuen froga sinesgarria eta enpresak benetan egindako lanari buruzko emaitzak. Behar beste froga jaso behar du, hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak gauzatu eta ezarri direla erakustearren.
2. Eranskina: “Justifikazioa”.
3. “Memoria finantzarioa” eranskina excel formatuan.
4. Dirulaguntzaren xede diren zerbitzu edo produktu kontratatuen **fakturak** eta “4. Lanpostua finkatzea” kontzeptuan emandako zenbatekoaren balioko nominak.
5. Egindako **ordainketen frogagiria**.
6. Dirulaguntzaren xede diren zerbitzuak hornitzen dituen erakundeak egoitza fiskala Donostian duela-eta % 10eko gehikuntza eskatuz gero, honakoak aurkeztu beharko dira:

- a. Erakunde juridikoen kasuan: IFKren kopia.
  - b. Jarduera ekonomiko batean ari diren pertsona fisikoa (autonomoa) izanez gero: AIZren kopia, zinpeko adierazpenarekin batera (“Hornitzailearen zinpeko adierazpena” eranskina).
7. Laguntza “4 – Lanpostua finkatzea” kontzeptuan eskatuz gero, pertsona kontratatuaren kontratua jasota dagoen enpresaren Lan Bizitza eman beharko da.

## 32. ARTIKULUA. INNPLANTA LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

“Innplanta” laguntzarako eskaerak baloratuak izateko, horretarako proiektuek (memoria deskriptibo tekniko eta ekonomia, “Memoria teknikoa” eranskina) eskatzen den gutxieneko puntuazioa (9. artikulua) lortu behar dute.

Eskatzen den gutxieneko puntuazioa gainditzen duten proiektuak garatu beharreko ekintzaren edo jardueraren deskripzioaren arabera ebaluatuko dira, bai eta aurrekontu banakatuaren arabera ere, eskatutako laguntza baloratzeko.

Baloraziorako irizpideak honakoak izango dira:

- Gastu hautagarriak eta proiektuarekin bat datozenak izatea.
- Gastuaren egokitasuna, proiektuan antzemandako beharretarako.
- Aurkeztutako aurrekontuetako zenbatekoak, partida horien kostu errealean balorazio baten arabera.
- Enpresak proiektuaren prestakuntzan erakutsitako inplikazioa eta aurrerapena.
- Produktuak edo zerbitzuak merkatura iristean izango dituen salmenten haztapena.

Diruz lagunduko diren ekintzen edo jardueren irismena, bai eta diruz lagundu daitezkeen gastuena ere, onuradunak jasoko duen azken ebazpenean zehaztuko dira; gerta daiteke hasieran aurreikusitako gastuetako batzuk diruz laguntzeko modukotzat ez jotzea.

## 33. ARTIKULUA. INNPLANTA LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

A modalitatean (A- Bakarrik laguntza eskaera (justifikaziorik gabe)) egindako eskaeren kasuan, laguntzak justifikatzeko epea 2023ko otsailaren 25 artekoa izango da.

Laguntzaren ordainketa inoiz ez da izango dirulaguntza emateko onartutako gastua baino handiagoa. Justifikazio faktura batek dagokion kontzeptuan emandako zenbatekoa gainditzen badu, ez da kontuan hartuko.

“Innplanta” laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, betiere honako dokumentazioa aurkeztu ondoren:

**Dokumentazio administratiboa:**

1. **Eranskina: “Justifikazioa”.**

2. **Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua**, betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
3. **“Memoria finantzarioa” eranskina.**
4. Dirulaguntzaren xede diren zerbitzu edo produktu kontratatuen **fakturak**.
5. **Egindako ordainketen frogagiria.**
6. Dirulaguntzaren xede diren zerbitzuak hornitzen dituen erakundeak egoitza fiskala Donostian duela eta % 10eko gehikuntza eskatu nahi izanez gero, honakoak aurkeztu beharko dira:
  - a) Erakunde juridikoen kasuan: IFKren kopia.
  - b) Jarduera ekonomiko batean ari diren pertsona fisikoa (autonoma) izanez gero: AIZren kopia, zinpeko adierazpenarekin batera (“Hornitzailearen zinpeko adierazpena” eranskina).
7. Laguntza “4 – Lanpostua finkatzea” kontzeptuan eskatuz gero, pertsona kontratatuaren kontratua jasota dagoen enpresaren **Lan Bizitza** eman beharko da.

#### **Dokumentazio teknikoa (“Amaierako memoria” eranskina), honakoak jasota:**

- a) Gastuetan laguntzen den **zerbitzu garatuen froga sinesgarria.**
- b) Enpresak benetan egindako lanari buruzko **emaitzak**. Behar beste froga jaso behar du, hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak gauzatu eta ezarri direla erakustearren.

Dokumentazioa modu telematikoa aurkeztu beharko da. Ez da onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik. Era berean, eranskin guztiak oso-osorik bete beharko dira.

Donostia Sustapenak zuzenean lortuko du zerga-betebeharrak beteak izateari buruzko egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bidez (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa).

Dirulaguntza eskatzeko eta ordainketak egiteko unean Udal Zerga Bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden erakundeek egunean daudela egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak berriaz egin ahal izango dio aurka Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzeari. Aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu:

- Laguntza eskatzen duen enpresak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntzaren eskatzaileak harekin zorrik ez duela egiaztatzen duena.

Dokumentazio guztia aztertu ondoren egiaztatzen bada benetan jasotako zerbitzuak, osorik edo zati batean, ez datozela bat onartutako jarduketekin edo justifikatutako gastuak dituzten kontzeptuekin, justifikatutako jarduketei dagokien zati proportzionala baino ez da ordainduko.

Laguntza justifikatzeko ezarritako epea igarotzen bada dagokion dokumentazioa aurkezteke, Donostia Sustapenak pertsona onuradunari eskatuko dio jakinarazpen honetatik gehienez ere 15 egun naturaleko epean dokumentazio hori aurkezteko. Epe berri hori igaro eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ez bada, ulertuko da laguntza ezetsi egin dela eta, beraz, kobratzeko eskubidea galdu dela, eta, hala badagokio, jasotako zatia itzuli egin beharko da.

## 4. KAPITULUA: BONU TEKNOLOGIKOAK

**DSS2022ko Ekonomia Bultzatzeko Planaren** esparruan laguntza hauek planteatzen dira, tokiko zenbait teknologia eta ikerkuntza zentrok (Ceit, CIC BiomaGUNE, CIC NanoGUNE, Biodonostia OII, Tecnalia, Tecnun eta Vicomtech) gure enpresa-sarera teknologia eta zerbitzu aurreratuak transferitzeko. Hala, laguntzak euskarri ekonomikoa izan daitezke, hain zuzen zentroen jakintza aurreratuak berehalako eragina izan dezan Donostiako enpresen eraldaketan, eta enpresen lehiakortasuna areagotuz negozio aukera berrien garapena bultzatzeko.

### 34. ARTIKULUA. BONU TEKNOLOGIKOEN XEDEA ETA ERAGILE LAGUNTZAILEAK

Laguntza hauen xedea da tokiko enpresa eta ekintzaileek sustatutako osagai teknologikoko proiektuak sustatzea eta garatzea, Ceit, CIC biomaGUNE, CIC NanoGUNE, Biodonostia OII, Tecnalia, Tecnun eta Vicomtech-ekiko elkarlanean, Donostiako ikerkuntza zentroetan garatutako teknologiaren eta ezagutzaren transferentziaren bitartez. Horrela, helburua da tokiko proiektu berritzaileak bultzatzen segitzea, bai proiektuak martxan jartzeko, bai merkatuan hazi eta finkatzeko, bai hiriko ekonomiaren ehuna osatzen duten enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta posizionamendua sendotzeko.

DSS2022 Ekonomia Bultzatzeko Planaren esparruan, gure hiriko zenbait teknologia eta ikerkuntza zentrotan elkarlanean eta modu partekatuan tokiko enpresa-proiektu berritzaileen garapena bultzatzeko tresnatzat planteatzen dira bonu teknologikoak.

Horretarako, osagai teknologikoa duten tokiko proiektuak bultzatu nahi dira, **produktuak eta/edo zerbitzu teknologikoak garatzeko prozesuetan I+G+b-ko eragile horiek eskain ditzaketen zerbitzu espezializatu, azterketa eta laguntza teknikoaren bitartez.**

Jarraian, bere zerbitzuak eta ezagutza bonu teknologikoen bidez eskaintzen dituzten eragile laguntzaileak adierazten dira. Donostia Sustapenak urte asko daramatza dagoeneko horiekin lanean, zenbait arlotan, esaterako talentua erakartzeko eta atxikitzeko, ETEetan eta ekintzaileen artean berrikuntza sustatzen duten jarduerak (programak, zerbitzuak, jardunaldiak eta ekitaldiak) bultzatzeko, proiektu berritzaileak eta aukerak bultzatzeko, ideia berriak eta sinergiak sortu eta abarretarako. Elkarlan horrek izaera publiko eta instituzionala iritsi du azkenean, erakunde horiekiko hitzarmen baten sinadurarekin.

- **4.1 kapitulua. CEIT ZENTRO TEKNOLOGIKOA ELKARTEA (aurrerantzean Ceit)**

CEIT irabazi asmorik gabeko ikerkuntza zentroa da, Nafarroako Unibertsitatearen ekimenez sortua 1982an. Zeregin nagusia du ikerketa aplikatuko industria-proiektuak gauzatzea kontratupean, enpresetako I+G sailekiko lankidetzan estuan, eta ikertzaile gazteak trebatuz gizarteari zerbitzua ematea.



- **4.2 kapitulua. Ingeniaritza Eskola (Nafarroako Unibertsitatea) (aurrerantzean TECNUN)**

TECNUN – Ingeniaritza Eskolak, Nafarroako Unibertsitatearenak, 55 urte baino gehiago daramatza udalerrian ingeniarietzako lanbide, zientzia eta giza heziketa lanean. TECNUNek, 1961ean sortu zutenez geroztik, oreka mantendu du irakaskuntzaren, ikerkuntzaren eta gizartearentzako zerbitzuaren artean, jarduera horiek guztiak elkarren osagarri bihurtuta.

- **4.3 kapitulua. Ikusizko Interakzioko eta Komunikazioko Teknologien Vicomtech Fundazio Zentroa (aurrerantzean Vicomtech)**

Vicomtech ikerkuntza aplikatuko zentroa da, Interakzio Aurreratu, Ikusmen Artifizial, datu inteligentzia, ordenagailu bidezko grafiko eta Hizkeraren eta Hizkuntza Naturalaren teknologietan espezializatua. Eginkizun nagusietakoa du gure inguruko enpresa eta erakundeek arlo horietako ikerkuntza aplikatua eta teknologiaren garapen eta berrikuntzan dituzten beharrei erantzutea, horien lehiakortasuna eta gure gizartearen garapen ekonomikoa eta bizi kalitatea hobetzearekin batera.

- **4.4 kapitulua. TECNALIA RESEARCH & INNOVATION FUNDAZIOA (aurrerantzean TECNALIA)**

TECNALIA udalerrian nazioarteko bikaintasuneko ikerketa aplikatua eta garapen teknologikoa lantzen ari da. Eragin handia du tokiko industrian, eta lehiarako abantaila eskaintzen du, hainbat arlotako gaitasunak biltzeagatik eta diziplina anitzeko ezagutzagatik. Zenbait lan egoitza dauzka gure hirian, eta ikerkuntzaren erreferentea dugu, Europako teknologia zentro garrantzitsuenetakoa da eta.

- **4.5 kapitulua. BIODONOSTIA Osasun Ikerketa Institutua (aurrerantzean BIODONOSTIA OII)**

BIODONOSTIA OIIk, bere jarduera garatzen duenean, xede ditu ikerkuntza biomedikoa, epidemiologikoa eta osasun publikoaren eta osasun zerbitzuen ingurukoa sustatzea, osasun sistemako programei eta politikei oinarri zientifikoa ematea, eta nagusiki ikerkuntza traslazonala bultzatzea, ezagutza zientifikoak jarduera klinikora iristea bizkortzearen, Gipuzkoako lurralde eremuan.

Azken urteotan gure gizarteak epe ertain eta luzean dituen erronketara bideratu da. Erronka eta aukera horiek zahartzearekin daude lotuta, baita gure gizartearen garapen ekonomiko eta sozialarekin eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzearekin zerikusia duen guztiarekin ere.

- **4.6 kapitulua. CIC NanoGUNE**

CIC NanoGUNE ikerkuntza kooperatiboko zentroa da, nanozientzia eta nanoteknologian espezializatua, Donostian kokatua. Zentroa 2009ko urtarrilean inauguratu zuten, eta gaur egun 80 ikertzaile baino gehiagoz osatutako lantaldea dauka. Urte hauetan zehar abangoardiako ikerkuntza garatu du nanozientiaren zenbait arlotan, eta buru izan da,

halaber, ezagutza eta teknologiaren transferentziarako zenbait proiektutan. Azpimarratzekoa da oinarri nanoteknologikoko enpresa berriak, hala nola Graphenea, Simune, Ctechnano, Evolgene edo Prospero Biosciences, sortzeko unean bete duen eginkizuna. Era berean, enpresaren ikerkuntza proiektuak Maria de Maeztu saria jaso du duela gutxi, estatu mailako garrantzitsuenetako bat alegia, Ikerkuntzako Estatu Agentziaren eskutik.

#### • 4.7 kapitulua. CIC BiomaGUNE

CIC BiomaGUNE ikerkuntza kooperatiboko zentroa da, eta xede ditu biomaterialen, irudi biomedikoaren eta medikuntza birsortzailearen arloan ezagutza zientifikoak eta teknologikoak sortzea, produzitzea, sustatzea, hedatzea, aplikatzea eta ustiatzea. Horretarako, ikerkuntza eta garapen esperimentaleko jarduera sistematikoak zertzen ditu, eta baita prestakuntza jarduerak eta transferentzia jarduerak ere, hirugarrenei zabalik, emaitzak sektore anitzetako gizarte eragileei eta enpresei helaraztearekin batera.

CIC BiomaGUNEren animaliategiak AAALACren akreditazioa dauka, eta haren irudi molekular unitatea Azpiegitura Zientifiko-Tekniko Berezi izendatu du Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak. Zentroaren I+G+b-a kudeatzeko sistemak UNE 166002:2014 araua segitzen du.

CIC BiomaGUNE Maria de Maeztu Bikaintasun Unitatetzat akreditatu du Ikerkuntzako Estatu Agentziak.

Osagarri gisa, eta laguntzak ematetik edo ukatzetik aparte, Donostia Sustapenak laguntza aditua eskaini ahal izango dio enpresen lehiakortasunari, proposatutako helburuak lortzea bultzatzeko eta proiektua eta sortutako enplegu aukerak finkatzen laguntzeko.

## 35. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA BONU TEKNOLOGIKOEN ZENBATEKOA

Donostia Sustapenak HIRUREHUN MILA (300.000) euro bideratuko ditu programa honetara. Zenbateko hori aldatu ahal izango dira Donostia Sustapenak hala erabakiz gero.

Diruz laguntzeko kontzeptuak eta laguntzen zenbatekoa laguntza mota bakoitzari dagokion atalean daude jasota.

Bonu teknologikoak **zerbitzu aurreratuak** eskainiko ditu, hau da, osagai teknologikoa duten tokiko proiektuek zerbitzu eta produktu teknologikoak garatzeko prozesuetan behar dituztenak, ikerkuntza eta teknologia zentro bakoitzerako adierazitako gaitasunen katalogoan zehazten den moduan:

- Ceit bonu teknologikoaren zerbitzu katalogoa: 40. artikulua.
- Tecnun bonu teknologikoaren zerbitzu katalogoa: 42. artikulua.
- Vicomtech bonu teknologikoaren zerbitzu katalogoa: 44. artikulua.
- Tecnalia bonu teknologikoaren zerbitzu katalogoa: 46. artikulua.
- Biodonostia OII bonu teknologikoaren zerbitzu katalogoa: 48. artikulua.

- CIC NanoGUNE bonu teknologikoaren zerbitzu katalogoa: 50. artikulua.
- CIC BiomaGUNE bonu teknologikoaren zerbitzu katalogoa: 52. artikulua.

Printzipioz, Donostia Sustapenak konprometitutako laguntzaren zatia eskudirutan ordainduko zaie onuradunei. Hala eta guztiz ere, 36. artikulua aipatzen duen dokumentazioa aurkezteko unean ez bada egiaztatzen onuradunak ordaindu dituela dagokion teknologia eta ikerkuntza zentroak jada emandako zerbitzuak, Donostia Sustapenak zuzenean zentroari ordaindu ahal izango dio zenbatekoa (Donostia Sustapenari dagokiona), eta automatikoki aplikatuko da onuradunak Donostiako Sustapenaren aurrean zuen kredituaren lagapena.

Bonu teknologikoaren onuradunak bere gain hartu beharko du dagokion BEZa.

Laguntza programa honen babesean eskaintzen diren zerbitzu guztietan bete egin beharko dira hiru alderdien artean adostutako konfidentzialtasun klausulak.

Eskatzaile bakoitzeko 2 bonu izango dira gehienez ere, eta bonu bat teknologia eta ikerkuntza zentroko.

## 36. ARTIKULUA. BONU TEKNOLOGIKOETARAKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

Bonu teknologikoaren laguntza eskatzen duten proiektuetarako, 7. artikuluan deskribatuaz gain, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

**Garapen teknologikoaren memoria espezifiko.** Eranskina: “Bonu teknologikoen memoria espezifikoaren gidoia”. Gutxienez honako informazio hau jasoko du:

- I+G+b-ko eragileari eskatutako zerbitzuen deskripzioa, lehentasunezko zentroa eta Gaitasunen Katalogoko beharrezko teknologiak identifikatuta eta horien beharra justifikatuta.
- Proiektuari lotutako lantaldearen, teknologia zentroarekiko harreman lanak egingo dituenaren deskripzioa.
- Aurreikusitako lanaren kronograma.
- Zentro teknologikoekin aurrez izandako esperientziak.

**Eskatzailea pertsona fisikoa bada** (enpresa eratu aurretik), enpresa plan bat ere aurkeztu beharko du, honako informazioa jasoz bertan:

- Funtsezko bazkideak: proiektua sustatzen duten pertsonen aurkezpena.
- Funtsezko jarduerak: garatu beharreko jardueren xehetasuna.
- Balio proposamena: planteatutako abantailaren xehetasuna.
- Bezero segmentua: helburu bezeroei eta erakartze moduari buruzko informazioa.
- Kostu egitura: kostu egituraren aurreikuspena.
- Aurreikusitako sarrera iturria: sarrera ereduaren aurreikuspena.
- Proiektua garatuko den zentroa edo establezimendua Donostian egoteko konpromisoa.

Memoria deskriptibo tekniko eta ekonomikoa modu simple eta argian idatziko da, erraz uler dadin, eta proiektua ulertzea distortsiona dezaketen teknizismoak saihestuko dira. Informazio

zehatza izango du, 9. artikuluan zehazten diren proposamenak baloratzeko irizpideak baloratzearen. Gehienez 8 orriko luzera gomendatzen da.

Onuradunak bere gain hartzen du erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa.

### 37. ARTIKULUA. BONU TEKNOLOGIKOAK IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

“Bonu teknologikoak” laguntzarako eskaerak baloratuak izateko, horretarako proiektuek (memoria deskriptibo tekniko eta ekonomia, “Memoria teknikoa” eranskina) eskatzen den gutxieneko puntuazioa (9. artikulua) lortu behar dute.

“Bonu teknologikoak” laguntzarako eskaera onartua izan dadin, **gutxienez 15 puntu** jaso beharko ditu ondoren adierazten den balorazio espezifikoa.

<b>Bonu teknologikoaren balorazio espezifikoa</b>	
1. Eskatutako zerbitzuak proiektu aurkeztuan egokitzea	10
2. Jasotako zerbitzu teknikoen ondotik emaitza aurreikusiak lortzeko probabilitatea	10
3. Enpresak teknologia bereganatzean iritsitako maila: lantaldearen egokitzapena, zentro teknologikoekiko aurretiazko lan esperientziak	10
<b>Bonu teknologikoaren balorazio espezifikoa</b>	<b>30 puntu</b>

Eskaera onartu ondoren, teknologia eta ikerkuntza zentroak aurrekontua prestatu eta negoziazio fase bati ekingo zaio inplikaturako hiru alderdien artean (onuraduna, teknologia eta ikerkuntza zentroa eta Donostia Sustapena), “Bonu teknologikoa” laguntza eskainiko zaien zerbitzu aurreratuen irismena dimentsionatzeko eta definitzeko.

Bai “Bonu teknologikoa” laguntzarako definitutako proiektuaren azken dimentsioa bai aurrekontuan onartutako zenbatekoa argi eta garbi zehaztuko dira onuradunak jasoko duen azken ebazpenean, eta onuradun horrentzako bonu bihurtuko da, aurrekontuan jasotako jarduerak garatzeko. Bonua emateak ez du esan nahi zenbateko ekonomikoa zuzenean onuradunari ordainduko zaionik.

## 38. ARTIKULUA. BONU TEKNOLOGIKOEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Bonu teknologikoaren zerbitzua emateko gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da laguntzari buruzko aldeko ebazpenaren datatik hasita; **prestazioa amaitzeko azken data 2023ko Uztailaren 28a** izango da, non eta, arrazoi justifikatuak tarteko, Sustapenak berariaz beste dataren bat baimentzen ez duen.

Zerbitzu prestazioa amaitu ondoren, eta **gehienez ere** amaiera horretatik **hilabeteko epean**, erakunde onuradunak aurkeztu egin beharko du ondoren eskatzen den dokumentazioa, horrela formalizatzearen bonuan definitutako prestazioak amaitu direla:

### 1. Eranskina: “Justifikazioa: Bonu teknologikoa”

#### Dokumentazio teknikoa:

2. **Emaitzen amaierako memoria:** teknologia eta ikerkuntza zentroak egindako lanaren deskripzioa, horretan behar beste ebidentzia jasoz hautatutako osagai teknologikodun proiektuan zerbitzua gauzatu eta ezarri dela erakusteko. Onuradunak eta teknologia eta ikerkuntza zentroak sinatuta egon beharko du, emandako zerbitzuarekiko adostasun froga gisa (“Amaierako memoria” eranskina).

#### Dokumentazio administratiboa:

3. **Faktura**, emandako zerbitzu aurreratuengatik teknologia eta ikerkuntza zentroak emana.
4. Teknologia eta ikerkuntza zentroari **BEZari dagokion zenbatekoa ordaindu izanaren frogagiria**.  
Diruz lagundutako proiektuari dagokionez zentro horrek ematen duen fakturari dagokion BEZ osoa ordaindu beharko du onuradunak.
5. **Frogagiria, teknologia eta ikerkuntza zentroari bonuaren balioaren % 10** eta dagokion BEZa ordaindu izanari buruzkoa, bai eta horrelako bonu baten onuradun izandakoen kasuan ebazpenean zehazten den faktura ere (bereiz fakturutzen badira).
6. Teknologia eta ikerkuntza zentroari zerbitzua ordaindu izanaren egiaztatzea, eskaeran **endosu** ereduari buruzko eranskinik aurkeztu ez bada, horrelakoetan onuradunak ordaindu behar baititu teknologia eta ikerkuntza zentroak emandako zerbitzu aurreratuak. Bestela, Donostia Sustapenari dagokion baterako finantzaketarako, ordainketa hori egin ez bada, Donostia Sustapenak baimena izango du berak konprometitutako zenbatekoa zentro horri zuzenean ordaintzeko, eta automatikoki aplikatuko da onuradunak Donostiako Sustapenaren aurrean zuen kredituaren lagapena (“Endosuaren eredia” eranskina).
7. **Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua**, betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

Eranskin guztiak oso-osorik bete beharko dira.

Justifikazio dokumentazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da.

Donostia Sustapenak zuzenean lortuko du zerga-betebeharrak beteak izateari buruzko egiaztatzea, ziurtagiri telematikoaren bidez (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa).

Eskatzaileak berriaz egin ahal izango dio aurka Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzeari. Aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu.

Dirulaguntza eskatzeko eta ordainketak egiteko unean Udal Zerga Bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden erakundeek egunean daudela egiaztatu beharko dute.

Eskatzailea berriaz agertu bada Sustapenak ziurtagiri telematikoak eskatzearen kontra, edo Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo tributatzen badu, honakoak ere aurkeztu beharko ditu:

- Laguntza eskatzen duen enpresak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntzaren eskatzaileak harekin zorrik ez duela egiaztatzen duena.

Edonola ere, laguntza justifikatzeko ezarritako epea igarotzen bada dagokion dokumentazioa aurkezteke, Donostia Sustapenak pertsona onuradunari eskatuko dio jakinarazpen honetatik gehienez ere 15 egun naturaleko epean dokumentazio hori aurkezteko. Epe berri hori igaro eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ez bada, ulertuko da laguntza ezetsi egin dela eta, beraz, kobratzeko eskubidea galdu dela, eta, hala badagokio, jasotako zatia itzuli egin beharko da.



## 4.1. KAPITULUA: CEIT TEKNOLOGIA ZENTROAREN ELKARTEA

### 39. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA DAGOKIEN KONTZEPTUAK ETA CEIT TEKNOLOGIA ZENTROAREN ELKARTEAREN BONU TEKNOLOGIKOAREN ZENBATEKOA

Donostia Sustapenak eta CEITek 77.000 euro jarri dituzte CEIT Bonu Teknologikoaren bidez proiektuei laguntzeko. Zenbateko hori aldatu daiteke Donostia Sustapenak hala erabakitzen badu.

Eskatzailearen tamainaren, proiektuaren garapenaren eta eskatutako zerbitzuaren arabera, bonu eta kofinantzaketa mota hauek planteatzen dira:

Bonuaren gehieneko balioa (BEZa kanpo)	Kofinantzaketa
8.000 €	Sustapenak % 70 CEITek % 30
12.500 €	Sustapenak % 55 CEITek % 35 Enpresak/ekintzaileak bonuaren balioaren % 10 ordaindu beharko du.

Bi bonu motetan, Bonu Teknologikoaren onuradunak bere gain hartu beharko du dagokion BEZa.

Emango den bonu mota honako alderdi hauen arabera zehaztuko da:

- Onuradunen tipologia: ekintzaileek, 5 urtetik beherako start-up-ek, mikroenpresek (10 langile baino gutxiago) lehentasuna izango dute 8.000 euroko bonuen eta kategoria horietan sartzen ez diren onuradunen aldean.
- Eskatutako zerbitzu teknologikoaren irismena.
- Ebaluazioan lortutako puntuazioa.
- Eskaera aurkezteko unean dagoen aurrekontua.

Onuradunari bonua eman zaiola jakinarazten zaion unean zehaztuko da zer bonu mota jasoko duen.

Adibide gisa, onuradunek zer zerbitzu tipologia eska ditzaketan adieraziko da jarraian.

**1. adibidea:** garapen teknologikoak martxan dituen eta faseren batean laguntza behar izan dezakeen enpresa. Adibidez:

*Enpresak produktu sorta bat du eta berri bat merkaturatu nahi du (adibidez, sentsore bateriadunen sare bat du eta sentsore autoelikatuen sare bat nahi du). Enpresak, Bonu Teknologikoa programaren bidez, entseguak ordaintzeko funtsak edo energiaren zatia kudeatzeko software garapen zehatz bat lortu ditzake.*

*Enpresak produktu bat du (adibidez, software aplikazio bat) eta modulu bat hobetu nahi du (adibidez, eskuzko prozesu bat automatizatu) edo berri bat sortu nahi du (adibidez, datuak ustiatzeko eta bistartzeko modulu berri bat). Bonu Teknologikoa programaren bidez, enpresak funtsak lortu ditzake, proiektuaren neurriaren arabera, zalantza teknikoak argitzeko, bideragarritasun teknikoaren azterketa egiteko, arkitekturari buruzko aholkularitza teknologikorako, aplikazioaren kodea garatzen den bitartean monitorizazioa eta akonpainamendu orokorra ordaintzeko, modulua bera garatzeko edo hobekuntzak integratzeko.*

**2. adibidea:** produktu/zerbitzu ideia bat duen eta produktuaren bideragarritasun teknikoaren azterketa egin nahi duen ekintzailea:

*X ekintzaileari produktu/zerbitzu teknologiko bat bururatu zaio (adibidez, kale batean aparkatzeko libre dauden plazak adierazteko gailua), eta ez daki zer teknologia erabili, ez eta irtenbide hori merkatuak onartuko lukeen prezio tartearen barruan egongo litzatekeen ere. Pertsona ekintzaileak, Bonu Teknologikoa programaren bidez, produktuaren bideragarritasun teknikoaren azterketa ordaintzeko funtsak lortu ditzake. Azterketak puntu hauek izango lituzke:*

*-Eskakizun funtzionalak aztertzea.*

*-Produktuak eskatutako funtzioak garatzeko funtsezkoak diren teknologiak aztertzea – abantailak eta desabantailak identifikatzea, bai eta horiei lotutako kostua ere (RFID duten baldosak farolei lotuta, ikusmen artifiziala, errealitate areagotua, etab.).*

*-Bloke nagusiak eta horiei lotutako kostua identifikatzea.*

*-Garapen teknologikoko estrategian bideratzea.*

## 40. ARTIKULUA. CEIT BONU TEKNOLOGIKOAREN ZERBITZUEN KATALOGOA

<b>CEIT-eko ZERBITZUEN KATALOGOA</b>
<b>EITK TEKNOLOGIETAKO ZERBITZUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Produktuen bideragarritasunaren analisiak EIKT teknologien bidez</li> <li>• Hardwarea: diseinuen analisiak, inplementazio-arriskuen identifikazioa, balidazio-proben proposamenak eta HWaren berrikuspena</li> <li>• EMC ziurtapenaren analisiak</li> <li>• HWaren prestazio mekanikoen analisiak (tenperatura eta bibrazioak)</li> <li>• Hari gabeko komunikazio-produktuen ezaugarritzea, ikuspegi funtzionaltik (egokitzapena, igorritako potentzia, banda-zabalera eta abar)</li> <li>• - Softwarea: diseinuen analisiak, inplementazio-arriskuen identifikazioa, balidazio-proben proposamenak eta SWaren berrikuspena</li> </ul>
<b>PRODUKTU DISEINUKO ZERBITZUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Produktuen bideragarritasun-azterketak, kontzeptu-diseinua abiapuntu hartuta (materialak hautatzea, fabrikazio-prozesuen identifikazioa, kostuen estimazioa)</li> <li>• Produktu-ingurutzailen diseinua</li> <li>• Produktu-ingurutzailen prototipatze azkarra</li> <li>• Produktuen gaineko esfortzuen analisi estatikoak (indarrak, tentsioak materialean eta abar)</li> <li>• Produktuen gaineko esfortzuen analisi dinamikokoak (azelerazioak eta abar)</li> <li>• Neke mekanikoaren eta termo-mekanikoaren eraginpeko produktuen bizitza-iragarpena</li> <li>• Produktuen analisi ergonomikoa</li> <li>• Hasierako Hardwarea</li> </ul>
<b>Ingeniaritza elektrikoko, elektronikoko, mekanikoko SISTEMA INDUSTRIALENTZAKO ZERBITZUAK eta materialak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mekanismoen analisiak (multibody simulazioak, tolerantzia-analisiak eta abar)</li> <li>• Zarataren eta bibrazioen analisiak (simulazioak eta landa-probak)</li> <li>• Elikatze-sistemen analisiak (potentzia-bihurgailuen, baterien, superkondentsadoreen, motorren eta abarren dimentsionamendua)</li> <li>• Analisi termikoak (FEM simulazioak, neurri esperimentalak eta abar)</li> <li>• - Industria-prozesuen analisiak eta optimizazioa (fluxuen, kontsumoen, zerbitzu-kalitatearen eta abarren simulazioa)</li> </ul>
<b>EZAUGARRITZE ZERBITZUAK</b>

- Gas-neurketak
- Uraren kalitate-neurketak
- Airearen kalitate-neurketak
- Materialen ezaugarritze optikoa
- Produktuen ezaugarritze termikoa
- Zarata eta bibrazioen ezaugarritzea

## 4.2. KAPITULUA: TECNUN BONU TEKNOLOGIKOAREN LAGUNTZA

### 41. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA DAGOKIEN KONTZEPTUAK ETA TECNUN BONU TEKNOLOGIKOAREN ZENBATEKOA

Donostia Sustapenak eta TECNUNek 64.000 euro jarri dituzte TECNUN Bonu Teknologikoaren bidez proiektuei laguntzeko. Zenbateko hori aldatu daiteke Donostia Sustapenak hala erabakitzen badu.

Bonu eta kofinantzaketa hau planteatzen da:

Bonuaren gehieneko balioa (BEZa kanpo)	Kofinantzaketa
8.000 €	Sustapenak % 70 TECNUNek % 30

Bonu Teknologikoaren onuradunak bere gain hartu beharko du dagokion BEZa.

Adibide gisa, onuradunek zer zerbitzu tipologia eska ditzaketen adieraziko da jarraian.

**1. adibidea:** garapen teknologikoak martxan dituen eta faseren batean laguntza behar izan dezakeen enpresa. Adibidez:

*Enpresak produktu sorta bat du eta berri bat merkaturatu nahi du (adibidez, sentsore bateriadunen sare bat du eta sentsore autoelikatuen sare bat nahi du). Enpresak, Bonu Teknologikoa programaren bidez, entseguak ordaintzeko funtsak edo energiaren zatia kudeatzeko software garapen zehatz bat lortu ditzake.*

**2. adibidea:** produktu/zerbitzu ideia bat duen eta produktuaren bideragarritasun teknikoaren azterketa egin nahi duen ekintzailea:

*X ekintzaileari produktu/zerbitzu teknologiko bat bururatu zaio (adibidez, kale batean aparkatzeko libre dauden plazak adierazteko gailua), eta ez daki zer teknologia erabili, ez eta irtenbide hori merkatuak onartuko lukeen prezio tartearen barruan egongo litzatekeen ere. Pertsona ekintzaileak, Bonu Teknologikoa programaren bidez, produktuaren bideragarritasun teknikoaren azterketa ordaintzeko funtsak lortu ditzake. Azterketak puntu hauek izango lituzke:*

- Eskakizun funtzionalak aztertzea.
- Produktuak eskatutako funtzioak garatzeko funtsezkoak diren teknologiak aztertzea – abantailak eta desabantailak identifikatzea, bai eta horiei lotutako kostua ere.
- Bloke nagusiak eta horiei lotutako kostua identifikatzea.
- Garapen teknologikoko estrategian bideratzea.

## 42. ARTIKULUA. TECNUN BONU TEKNOLOGIKOAREN ZERBITZUEN KATALOGOA

<b>TECNUN-EKO ZERBITZUEN KATALOGOA</b>
<b>TEIC TEKNOLOGIEN ZERBITZUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bideragarritasun tekniko-ekonomikoaren analisisa elektronikako zirkuitu integratuan sartzeko.</li> <li>• Bloke analogiko integratuak modu eskematikoan diseinatzea.</li> <li>• Zirkuitu integratuen karakterizazioa.</li> <li>• Maiztasun handiko haririk gabeko komunikazioei buruzko aholkularitza teknologikoa.</li> <li>• Errendimendu handiko PCBn diseinua eta simulazioa.</li> <li>• Antenen diseinua eta simulazioa zehaztapenen arabera.</li> <li>• Simulazio elektromagnetikoak.</li> <li>• Antenen karakterizazioa.</li> <li>• RFID pasiboen eta aktiboen karakterizazioa.</li> <li>• Chipless sentsoredun IoT aplikazioen bideragarritasun-azterketa.</li> <li>• Prozesu industrialetako uraren eta energiaren kontsumoaren eta kalitatearen diagnostiko integrala.</li> <li>• Ekonomia zirkularrerako enpresa digitalizatzeko aukeren azterketa.</li> <li>• Ekonomia zirkularra garatzeko plataforma digitalak aplikatzea</li> </ul>
<b>SEGURTASUN-ZERBITZUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresa eta azpiegitura kritikoen erresilientzia analisisa.</li> </ul>
<b>PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- "Serious games"-en definizioa eta industria-simulagailuak prestakuntza-ikastaro online eta presentzialetarako.</li> <li>- Irakaskuntza-teknologiei buruzko aholkularitza.</li> <li>- Gaitasun digitalei buruzko aholkularitza eta negozio-ereduen digitalizazioa.</li> </ul>
<b>DISEINU, MODELIZAZIO ETA SIMULAZIO ZERBITZUAK</b>



- Produktu berrien industria-diseinurako metodologiengatik inguruko aholkularitza teknikoa.
- Produktu, prozesu edo sistema berri baten alderdi ergonomikoei buruzko aholkularitza.
- Produktu, prozesu edo sistema berri bat modelatzeko eta simulatzeko erremintak garatzea, bideragarritasuna egiaztatzea eta diseinua eta kontzeptua aurrez definitzeko.
- Produktu, prozesu edo sistema berri baten alderdi mekanikoei buruzko aholkularitza teknikoa.
- Produktu, prozesu edo sistema baten analisi esperimentalak, sentorizazioa, monitorizazioa eta diagnostikoa, behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzea eta gerta daitezkeen akatsak identifikatu eta zuzentzeko.
- Programa konputazional espezifikoengatik bitartez, produktu, prozesu edo sistema baten kalkulua aurreratuak, behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzea eta gerta daitezkeen akatsak identifikatu eta zuzentzeko, esperimentalki sakondu ezin diren kasuetan.
- Egituren simulazioa eta modelatzea (zuntzak, material porotsua, e.a.).
- Biomaterialen degradazio-prozesuen simulazioa.
- Prozesu zelular sinpleen simulazioa (migrazioa, deformazioa, e.a.).

#### **KULTIBO-EUSKARRIEN ZERBITZUAK**

- -Diseinu digitala, egitura porotsuen, fibrilarren eta abarren simulazioa eta modelatzea.
- -Biomaterialen egituretatik abiatuta degradazioa eta hedapena simulatzea.
- -Biomaterialen karakterizazio mekanikoa: Saiakuntza uniaxialak eta reometria (tenperatura kontrolatua)
- -Scaffold polimerikoak fabrikatzeko teknologiak: Electrospinning, FDM, casting, etab.
- -Bioinprimatze-probak biomaterial polimerikoekin, hidrogelekin eta abarrekin.

#### **EKONOMIA ZIRKULARREKO ZERBITZUAK**

- -Ekonomia zirkularra hobetzeko ekintzak identifikatzea, aukerak aztertzea eta ekintza-plana egitea
- -Kontsumo iraunkorreko lineetan oinarritutako negozio-ildo berriak aztertzea eta garatzeko proposamenak egitea.

### 4.3. KAPITULUA: VICOMTECH BONU TEKNOLOGIKOAREN LAGUNTZA

#### 43. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA DAGOKIEN KONTZEPTUAK ETA VICOMTECH BONU TEKNOLOGIKOAREN ZENBATEKOA

Donostia Sustapenak eta VICOMTECHek 84.200 euro jarri dituzte VICOMTECH Bonu Teknologikoaren bidez proiektuei laguntzeko. Zenbateko hori aldatu daiteke Donostia Sustapenak hala erabakitzen badu.

Proiektuaren garapenaren eta eskatutako zerbitzuaren arabera, bonu eta kofinantzaketa mota hauek planteatzen dira:

Bonuaren gehieneko balioa (BEZa kanpo)	Kofinantzaketa
8.000 €	Sustapenak % 70 VICOMTECHek % 30
14.500 €	Sustapenak % 55 VICOMTECHek % 35 Enpresak/ekintzaileak bonuaren balioaren % 10 ordaindu beharko du.

Bonu Teknologikoaren onuradunak bere gain hartu beharko du dagokion BEZa.

Bonuaren eskatzaileak proposa dezake zer bonu mota eskatu nahi duen, baina zentro teknologikoak eta Donostia Sustapenak erabakiko/proposatuko dute bonu mota.

Adibide gisa, onuradunek zer zerbitzu tipologia eska ditzaketan adieraziko da jarraian.

**1. adibidea:** garapen teknologikoak martxan dituen eta faseren batean laguntza behar izan dezakeen enpresa. Adibidez:

*Enpresak produktu bat du (adibidez, software aplikazio bat) eta modulu bat hobetu nahi du (adibidez, eskuzko prozesu bat automatizatu) edo berri bat sortu nahi du (adibidez, datuak ustiatzeko eta bistartzeko modulu berri bat). Bonu Teknologikoa programaren bidez, enpresak funtsak lortu ditzake, proiektuaren neurriaren arabera, zalantza teknikoak argitzeko, bideragarritasun teknikoaren azterketa egiteko, arkitekturari buruzko aholkularitza teknologikorako, aplikazioaren kodea garatzen den bitartean monitorizazioa eta akonpainamendu orokorra ordaintzeko, modulua bera garatzeko edo hobekuntzak integratzeko.*

**2. adibidea:** produktu/zerbitzu ideia bat duen eta produktuaren bideragarritasun teknikoaren azterketa egin nahi duen ekintzailea. Adibidez:

*X ekintzaileari produktu/zerbitzu teknologiko bat bururatu zaio (adibidez, kale batean aparkatzeko libre dauden plazak adierazteko gailua), eta ez daki zer teknologia erabili, ez eta irtenbide hori merkatuak onartuko lukeen prezio tartearen barruan egongo litzatekeen ere. Pertsona ekintzaileak, Bonu Teknologikoa programaren bidez, produktuaren bideragarritasun teknikoaren azterketa ordaintzeko funtsak lortu ditzake. Azterketak puntu hauek izango lituzke:*

- *Arazoa edo beharra aztertzea eta eskakizun funtzionalak aztertzea.*
- *Irtenbide teknologiko alternatiboak aztertzea eta ebaluatzea. Produktuak eskatutako funtzioak garatzeko funtsezko teknologiak identifikatzea.*
- *Kostua eta onura aztertzea, abantailak, lotutako kostuak eta arriskuak baloratzuz (RFID duten baldosak farolei lotuta, ikusmen artifiziala, etab.).*
- *Garapen teknologikorako estrategia eta plana ezartzea, gutxieneko prototipo bideragarria definitzea eta hori lortzeko hurrengo urratsak.*

**3. adibidea:** eremu emergenteetako teknologiak (Big Data-Analytics, Internet of Things-Wearables, 3D inprimaketa) bere produktuetan edo prozesuetan txertatzeko aukerak aztertu nahi dituen enpresa/pertsona ekintzailea. Adibidez:

*Enpresak bere negozioa berritzeko aukerak aztertu nahi ditu, bere produktuan IoT teknologia emergenteen aplikazio berrietatik abiatuta (adibidez, etxeko eta argiztapeneko artikuluei funtzionalitate berriak gehitzeko aukerak aztertuz, haien artean eta Internetekin interkonektatuta). Bonu Teknologikoa programaren bidez, enpresak bere produktu/prozesu espezifikoan teknologia emergenteak txertatzeko aukeren mapa bat egiteko funtsak lortu ditzake, honako puntu hauek barne:*

- *Teknologia emergente garrantzitsuen agertokiak aztertzea enpresaren produktuarekin/prozesuarekin lotuta, eta hurbileko kasuen erreferentziak aztertzea.*
- *Aukera zehatzak identifikatzea eta hautatzea.*
- *Bideragarritasun teknikoaren ebaluazioa eta kostu-onuraren azterketa egitea.*

## 44. ARTIKULUA. VICOMTECH BONU TEKNOLOGIKOAREN ZERBITZUEN KATALOGOA

<b>VICOMTECH ZERBITZUEN KATALOGOA</b>
<b>EITK TEKNOLOGIEN ZERBITZUAK</b>
<p>Softwarea: kontzeptu probak, SW arkitekturen diseinua, prototipatze azkarraren analisia edo aplikazioen bideragarritasuna:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Adimen artifiziala (Machine Learning, Deep Learning...).</li> <li>- Irudiaren teknologiak, bistaratzea, konputazioa eta datuen analisi adimenduna eta pertsona-makina elkarreagina sektore klinikoan, sozio-sanitarioan, bioteknologikoan eta farmazeutikoan.</li> <li>- Eredu prediktiboak eta erabakiaren euskarri sistemak sortzea, gaixotasunen prebentzio, estratifikazio eta pronostikoaren aurreikuspenarako.</li> <li>- Osasunari buruzko datu heterogeneoak integratzea eta harmonizatzea, datu omikoak aztertzea eta eskala handian prozesatzea (Big Data), medikuntza pertsonalizatua ezartzeko.</li> <li>- 5G kontzeptuko probak industria inguruneetan edo mugikortasun edo kudeaketa eredu berriei eta azpiegiturei lotuta.</li> <li>- Multimedia edukiak kudeatzea (ikus-entzunezko edukiaren latentzia baxuko banaketa denbora errealean, QoE esperientziaren kalitatea maximizatzeko algoritmoak eta banaketa kostuen optimizazioa).</li> <li>- Multimedia zerbitzuekin elkarreagiteko teknologiak (3D Media edukiaren bistaratzea eta interakzioa, bideoa, audioa, bideo onmidirekzionalak eta 3D barne; eta pantaila anitzeko zerbitzuen orkestrazioa).</li> <li>- Itzulpen automatikoko sistemak.</li> <li>- Hizkuntza ezagutzeko eta transkripziorako sistemak.</li> <li>- Hizkuntza naturala automatikoki prozesatzeko sistemak, testu bolumen handietan.</li> <li>- Datu bolumen handiak ustiatzeko sistemak</li> <li>- (Big Data, Data Intelligence, Visual Analytics) eta energia eta prozesu industrialetarako eredu prediktiboak sortzea.</li> <li>- Ikusmen artifizialeko aplikazioak denbora errealean.</li> <li>- Errealitate areagotuaren eta errealitate birtual aplikatuaren aplikazioak.</li> <li>- Simulazioak (Digital Twin, Modelatze biomekanikoa irudian oinarrituta).</li> <li>- Informazio sistema eta komunikazio sare tradizioaletan nahiz industrialetan ohiz kanpoko portaerak eta portaera gaiztoak detektatzeko zibersegurtasuna.</li> <li>- Transakzio sistemetan, ikaskuntza automatikoko ereduetan edo software aplikazioetan ahuleziak bilatzeko zibersegurtasuna.</li> </ul>
<b>PRODUKTUA DISEINATZEKO ZERBITZUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Algoritmia integratzea HW dedikatuan eta/edo prozesamendu baxukoan (i.MX, ARM arkitekturak, GPU prozesamendua, etab.).</li> </ul>

## 4.4. KAPITULUA: TECNALIA BONU TEKNOLOGIKOAREN LAGUNTZA

### 45. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA DAGOKIEN KONTZEPTUAK ETA TECNALIA BONU TEKNOLOGIKOAREN ZENBATEKOA

Donostia Sustapenak eta TECNALIAk 76.200 euro jarri dituzte TECALIA Bonu Teknologikoaren bidez proiektuei laguntzeko. Zenbateko hori aldatu daiteke Donostia Sustapenak hala erabakitzen badu.

Proiektuaren garapenaren eta eskatutako zerbitzuaren arabera, bonu eta kofinantzaketa mota hauek planteatzen dira:

Bonuaren gehieneko balioa (BEZa kanpo)	Kofinantzaketa
8.000 €	Sustapenak % 70 TECNALIAk % 30
14.500 €	Sustapenak % 55 TECNALIAk % 35 Enpresak/ekintzaileak bonuaren balioaren % 10 ordaindu beharko du.

Bonu Teknologikoaren onuradunak bere gain hartu beharko du dagokion BEZa.

Adibide gisa, onuradunek zer zerbitzu tipologia eska ditzaketen adieraziko da jarraian.

**1. adibidea:** garapen teknologikoak martxan dituen eta faseren batean laguntza behar izan dezakeen enpresa. Adibidez:

*Enpresak produktu sorta bat du, eta, dibertsifikazio estrategiak bultzatuta, osatu egin nahi du produktu berri bat garatuta edo daudenetakoren bat berrituta (adibidez, sentsore bateriadunen sare bat du eta sentsore autoelikatuen sare bat nahi du, edo eraikinetan energia kudeatzeko sistema bat du, eta tokiko iragarpen meteorologikoko datuekin osatu nahi du). Enpresak, Bonu Teknologikoa programaren bidez, entseguak ordaintzeko funtsak edo energiaren zatia kudeatzeko software garapen zehatz bat lortu ditzake.*

**2. adibidea:** produktu/zerbitzu ideia bat duen eta produktuaren bideragarritasun teknikoaren azterketa egin nahi duen ekintzailea:

*X ekintzaileari produktu/zerbitzu teknologiko bat bururatu zaio (adibidez, kale batean aparkatzeko libre dauden plazak adierazteko gailua), eta ez daki zer teknologia erabili, ez eta irtenbide hori merkatuak onartuko lukeen prezio tartearen barruan egongo litzatekeen ere. Pertsona ekintzaileak, Bonu Teknologikoa programaren bidez, produktuaren*

*bideragarritasun teknikoaren azterketa ordaintzeko funtsak lortu ditzake. Azterketak puntu hauek izango lituzke:*

- *Arazoa edo beharra aztertzea eta eskakizun funtzionalak aztertzea.*
- *Irtenbide teknologiko alternatiboak aztertzea eta ebaluatzea. Produktuak eskatutako funtzioak garatzeko funtsezko teknologiak identifikatzea.*
- *Kostua eta onura aztertzea, abantailak, lotutako kostuak eta arriskuak baloratuz (RFID duten baldosak farolei lotuta, ikusmen artifiziala, etab.).*
- *Garapen teknologikorako estrategia eta plana ezartzea, gutxieneko prototipo bideragarria definitzea eta hori lortzeko hurrengo urratsak.*

**3. adibidea:** eremu emergenteetako teknologiak (Big Data-Analytics, Internet of Things-Wearables, 3D inprimaketa) bere produktuetan edo prozesuetan txertatzeko aukerak aztertu nahi dituen enpresa/pertsona ekintzailea. Adibidez:

*Enpresak bere negozioa berritzeko aukerak aztertu nahi ditu, bere produktuan IoT teknologia emergenteen aplikazio berrietatik abiatuta (adibidez, etxeko eta argiztapeneko artikuluei funtzionalitate berriak gehitzeko aukerak aztertuz, haien artean eta Internetekin interkonektatuta). Bonu Teknologikoa programaren bidez, enpresak bere produktu/prozesu espezifikoan teknologia emergenteak txertatzeko aukeren mapa bat egiteko funtsak lortu ditzake, honako puntu hauek barne:*

- *Teknologia emergente garrantzitsuen agertokiak aztertzea enpresaren produktuarekin/prozesuarekin lotuta, eta hurbileko kasuen erreferentziak aztertzea.*
- *Aukera zehatzak identifikatzea eta hautatzea.*
- *Bideragarritasun teknikoaren ebaluazioa eta kostu-onuraren azterketa egitea.*

## 46. ARTIKULUA. TECNALIA BONU TEKNOLOGIKOAREN ZERBITZUEN KATALOGOA

<b>TECNALIA ZERBITZUEN KATALOGOA</b>
<b>a1: Zerbitzuak Garapen Teknologikoan eta Produktuarenean, eremu hauetan:</b>
<p><b>A1.1: ENERGIA ETA INGURUMENA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sare elektriko adimendunak</li> <li>- Itsasoko energia berriztagarriak</li> <li>- Eguzki energia</li> <li>- Hondakinen balorizazioa</li> <li>- Energiarako eta ingurumenerako materialak</li> <li>- Energia eraginkortasuna</li> <li>- Hiri eta lurralde jasagarritasuna</li> <li>- Meteorologia</li> <li>- Produktu, eraikin eta azpiegituren jasagarritasun ziurtagiriak</li> </ul> <p><b>Zerbitzu motak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxe digitalerako soluzio energetiko adimendunak garatzea.</li> <li>- Aplikazio eta sistema energetikorako potentzia elektronika garatzea (inbertsore</li> </ul>



fotovoltaikoak, bihurgailu eolikoak: energia elektrikoa biltegitratzea, ibilgailu elektrikoa, sareko iragazki aktiboak eta abar).

- Mikro-sareak diseinatzea eta kontrolatzea hiriguneetan eta urruneko kokalekuetan energia eraginkortasuna hobetzeko.
- Modulu fotovoltaikoak diseinatzea eta haien ebaluazio funtzionala egitea.
- Hondakinen balorizazio azterketak egitea (baliabide berriak, material berriak, energia, bigarren mailako lehengaiak eta abar).
- Material eta gainazal aurreratuak aztertzea eta egokitzea energia aplikazioetarako: muturreko baldintzetan erresistenteak diren gainestaldurak, geruza funtzional eraginkorrak (esaterako, eguzki energia), mikro eta nano materialak.
- Produktuen bizitza zikloa aztertzea eta ingurumen adierazpenak egitea.

#### **A1.2: ERAIKUNTZA JASANGARRIA:**

- Material berritzaileak eta jasangarriak
- Eraikuntza industrializatua
- Errehabilitazioa

#### **Zerbitzu motak:**

- Produktu eta sistema berriak garatzea irisgarritasunerako eta barne arkitekturarako.
- Eraikuntza sistemetan material berriak eta energia berriztagarrietan oinarritutako funtzionalitateak ezartzea.
- Materialak baliozkotzea aplikazio energetikoetarako eta termikoetarako (esate baterako, eguzki energia termikorako osagaiak, ingurune erasokorrak, tenperatura altua, eta abar).

#### **A1.3 IKT-AK, ZERBITZU DIGITALAK, KONEKTIBITATEA**

- Datuen analisia eta modelatzea
- Zerbitzu digitalak

#### **Zerbitzu motak:**

- SW sistemen bizi ziklo segurua hobetzeko aholkularitza ematea.
- IT sistemetan eta soluzioetan zibersegurtasuneko kontrolak garatzeko aholkularitza ematea.
- Sistema industrialen zibersegurtasuna (scada) ebaluatzea eta hobetzea, merkatuko estandarren arabera.
- Pertsona-makina interakzio sistemak diseinatzea.

#### **A1.4 OSASUNA:**

- Robotika medikoa
- Errehabilitazioa
- Neuroteknologia
- Osasun digitala
- Laneko arriskuak prebenitzeko "soinean eramatekoak"
- Elikagai osasungarriak, azpiproduktuen balorizazioa eta kontserbazioa
- Produktu biomedikoa eta medikuntza birsortzailea
- In vitro diagnostikoa

**Zerbitzu motak:**

- Osasunaren eta bizi kalitatearen inguruko sistema/gailu/zerbitzuak diseinatzea.
- Osasuna hobetzeko edo bizimodu osasungarria izateko soluzioak eta zerbitzuak diseinatzea.

**A1.5 INDUSTRIA ETA GARRAIOA:**

- Automozioa
- Fabrikazio aurreratua
- Tresneria
- Makina bereziak

**Zerbitzu motak:**

- Eskuzko eragiketa sofistikatuak automatizatzeko eta muntaketa eta fabrikazio prozesuetan tresna konplexuen kostuak murrizteko azterketak egitea.

**A2: PRODUKTUEN, PROZESUEN ETA SISTEMEN FIDAGARRITASUNA, KALITATEA ETA SEGURTASUNA EBALUATZEKO ZERBITZUAK**

**Zerbitzu motak:**

- Materialak hautatzea, zerbitzuko portaera aztertzea, akatsen analisia, industria jatorriko osagaien hondar bizitza eta bizi luzapena. Prebentziozko mantentzea.
- Materialen eta produktuaren prestazioak karakterizatzea eta ebaluatzea.
- Errealitatea atzematea 3D eskanerren bitartez, ingurune industrialetan digitalizatzeko eta BIM modelatua egiteko. 3D web konfiguragailua.
- Ebaluazio eta ikuskatze zerbitzuak ematea errealitate areagotuaren bidez.
- Ekipo eta sistema elektronikoen fidagarritasuna eta segurtasuna ebaluatzea.
- Bioteknologia eta biomedikuntza zerbitzuak ematea.
- Produktu, prozesu eta sistema berriak garatzea irisgarritasunerako eta barne arkitekturarako.
- Materialak baliozkotzea eraikinetako eta azpiegituretako aplikazio energetiko eta termikoetarako (adibidez, eguzki energia termikorako osagaiak, ingurune erasokorrak, tenperatura altua, eta abar.)
- Produktuen eta sistemen zibersegurtasun maila ebaluatzea.

**B: AHOLKULARITZA AURRERATUKO ZERBITZUAK:**

Aholkularitza aurreratua eremu emergenteetako teknologiak (Big Data-Analytics, Internet of Things-Wearables, 3D inprimaketa) bere produktuetan edo prozesuetan txertatzeko aukerak aztertzeke.

Teknologia eremu emergenteen deskribapena:

**BigData/Analytics:**

Datu masiboen azterketa edo "big data" bi faktoreren ondorioz sortu den aukera berri bat da: batetik, mota guztietako datu prozesagarriak, batzuk jabedunak eta beste batzuk publikoak edo irekiak, gero eta eskuragarriago daudelako; eta bestetik, informazioa prozesatzeko tresnak gero eta irisgarriago daudelako. Sare sozialak, telefono adimendunak, txartelak edo ingurunean dauden sentsoreak datu iturri baliotsuak dira, eta datu horiek prozesatuta hainbat informazio lortu daitezke: joerak, dentsitatea, mugikortasuna, iruzurra, kontsumoa, eta abar. Datu masiboen azterketa diziplina emergentea da, eta ia edozein negoziotan erabakiak zehaztasun handiagoz

hartzeko lagundu dezake.

### **IoT/Wearables:**

Eguneroko zenbait objektu gai dira informazioa prozesatzeko eta pertsonekin eta beste objektu batzuekin elkarrengaitzeko, zuzenean edo komunikazio sistemen bidez (Internet, adibidez), eta Gauzen Internetak (IoT) objektu horien gero eta instrumentazio handiagoan du jatorria, hain zuzen. Ingurunean dauden objektuak dira, edo pertsonen daramatzatenak (wearable edo soinean eramatekoak) eta, elkarren artean konektatuta, funtzionalitate bereziak eskaintzen dituzte, hots, informatu, sentorizatu, jarduten dute. Adibideak kasik eremu guztietan daude: etxean (gailu domotikoak, segurtasuna, etxetresna elektrikoak), enpresan eta lantegian (ekoizpenaren kontrola, trazabilitatea, sarbideen kontrola, energia kudeaketa), merkataritzan (kokapena, neurketa), osasunean (trazabilitatea, kudeaketa medikoa, telelaguntza), garraioan (sarbideak, bidesariak, kontrola), segurtasunean (trazabilitatea, sarbideen kontrola, jarraipena). Eta gero eta sofistikatuagoak dira, adimentsuagoak eta euren artean konektatzen dira konektibitateko eta konputazioko gaitasun berriak aprobetxatuz.

### **3D inprimaketa/Fabrikazio gehigarria:**

Fabrikazio teknologia berrien garapenari esker, ondasunen eta produktuen ekoizpena pixkanaka aldatzen ari da, bai eskala makroekonomikoan (berrindustrializazioa), bai mikroekonomikoan (tokiko fabrikazioa). Horri gizartearen joera berriak gehitu behar zaizkio, produktu pertsonalizatuagoen eta produktu serie laburragoen ingurukoak. Zenbakizko kontroleko makinak, laser ebakigailuak edo 3D inprimagailuak agente berrientzat eskuragarri egoten hasi dira. Gizartea askoz ere interkonektatuago dago, eta nahiko erraza da diseinuak sortzea, banatzea eta partekatzea, gero tokian bertan egiteko baliabide eskuragarriago horiekin. Software edo hardware irekiko ekimenei esker (Arduino edo Raspberry Pi, adibidez), espezializatuta ez dauden agenteek teknologia horiek erabil ditzaketen beren diseinuetan eta produktuetan. Horrela, balio handiko produktuak sortzeko aukera berriak agertzen ari dira, metodo tradizionalekin lehiatzeko moduan.

Aurreko hiru eremuetako aholkularitza zerbitzu aurreratuaren bidez, bonuaren erakunde onuradunak honako hauek lortuko ditu:

- produktu/prozesuetan berrikuntza aukera zehatzak formulatzea, teknologia emergenteak txertatuz, eta egingarritasun teknikoa eta, hala badagokio, merkatu bideragarritasuna ebaluatzea.
- espero den kostu-onura aztertzea.

### **Zibersegurtasuna:**

Enpresek, herritarrek eta administrazioek zibererasotzaileek gero eta gehiago mehatxatzen duten ingurune digital batean jardun behar dutenez, diseinutik abiatuta segurtasun filosofia bat hartu behar da, mehatxu zibernetikoekiko erresistentzia areagotzeko, ahultasunak murrizteko, segurtasun arriskuak murrizteko eta babesa areagotzeko. Askotan, gainera, zibersegurtasunaren arloko araudi eta estandar aplikagarriak bete behar dira, eta espezifikoak ere izan daitezke sektore jakin baterako.

Aholkularitza aurreratuko zerbitzuaren bidez, aukera hau planteatzen da: aztertzea nola txertatu daitezkeen sistemetan eta prozesuetan hainbat mekanismo, datuen pribatasuna eta

konfidentzialtasuna ziurtatzeko –zifratze teknologiak edo PET (Privacy Enhancing Technologies) oinarri hartuta–, konfiantza eta gardentasuna eskaintzeko –DLT (Distributed Ledger Technologies) edo Blockchain aplikatuta–, eta IA (adimen artifiziala) teknikak aplikatzeko, sistemaren segurtasun egoera monitorizatuko duten ziberadimen tresnak edukitzeko.

## 4.5. KAPITULUA: IIS BIODONOSTIA BONU TEKNOLOGIKOAREN LAGUNTZA

### 47. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA DAGOKIEN KONTZEPTUAK ETA IIS BIODONOSTIA BONU TEKNOLOGIKOAREN ZENBATEKOA

Donostia Sustapenak eta IIS BIODONOSTIAk 19.250 euro jarri dituzte IIS BIODONOSTIA Bonu Teknologikoaren bidez proiektuei laguntzeko. Zenbateko hori aldatu daiteke Donostia Sustapenak hala erabakitzen badu.

Proiektuaren garapenaren eta eskatutako zerbitzuaren arabera, bonu eta kofinantzaketa mota hauek planteatzen dira:

Bonuaren gehieneko balioa (BEZa kanpo)	Kofinantzaketa
8.000 €	Sustapenak % 70 IIS BIODONOSTIAk %30
12.500 €	Sustapenak % 55 IIS BIODONOSTIAk %35 Enpresak/ekintzaileak bonuaren balioaren % 10 ordaindu beharko du.

Bonu Teknologikoaren onuradunak bere gain hartu beharko du dagokion BEZa.

Bonuaren eskatzaileak proposa dezake zer bonu mota eskatu nahi duen, baina Institutuak eta Donostia Sustapenak erabakiko/proposatuko dute bonu mota.

Adibide gisa, onuradunek zer zerbitzu tipologia eska ditzaketan adieraziko da jarraian.

**1. adibidea:** diagnostiko genetiko pertsonalizatua, “direct-to-consumer”, egiten duen enpresa batek diagnostikoen zorroa handitu nahi du, eta pankreako eta bularreko minbizien azterketa sartu.

*Odol laginen diagnostikoa egiteko protokoloen diseinua eta prestaketa ikertu nahi dira, pazienteak pankreako edo bularreko minbizia izateko arriskurik ote dagoen diagnostikatzeko.*

*Egin beharreko lanak etapa hauek izango lituzke:*

*a) IIS BIODONOSTIAren Genomikako Plataformarekin bilera, Institutuak dituen erremintak eta ekipamenduak ezagutzeko eta diagnostiko genetikoan eta genomikoan zer teknika erabiltzen dituen jakiteko.*

- b) *Diagnostiko genetiko orotan egin beharreko gutxieneko urratsak edo baldintzak bateratzea.*
- c) *Diagnostiko genetiko baten adibide praktiko bat egitea.*
- d) *Institutuak diagnostiko genetikoaren protokolo bat idaztea, enpresa onuradunak dituen baliabideetan eta teknologian oinarrituta.*

*IIS BIODONOSTIAREN Genomikako Plataformak dituen teknikak, erremintek eta ekipoek, haren know-how eta esperientzia profesionalarekin batera, enpresa onuradunaren jarduerara erraztuko lukete, lehen mailako ezagutza praktikoa lortuko bailuke, etorkizunean diagnostiko genetikoaren inguruko protokolo profesionalak abian jartzeko.*

**2. adibidea:** Medikuntza pertsonalizatuaren eremuan, EAE abangoardiako posizio batean jartzeko helburuarekin, osasun emaitzak asistentzia prozesuen eta osasun kudeaketaren oinarri gisa erabiltzeko aukera ematen duten teknologia erraztaileak garatuta, jarduerak eta produktuak nazioartera eramateko gaitasun handia duten gure enpresa sareko enpresen bidez munduko beste leku batzuetara esportatu daitezkeen teknologiak garatu nahi dira.

*Medikuntza pertsonalizatuaren ildo horretan, arreta jartzen da teknologia omikoen integrazioan, IT eta Big Data irtenbideekin.*

*Industria enpresek dimentsio anitzeko datuak modu sistematizatuan atzemateko asistentzia eredu bat sortuko dute, eta horrek aurrerapen kualitatibo batera eramango gaitu eremu estrategiko hauetan: medikuntza pertsonalizatua, Big Data for Better Outcomes eta Value Based Healthcare.*

*Asistentzia eredu berri honek gaixoa azterketaren erdian jartzen du, ahalduntzen du, eta bere plan terapeutikoan parte hartzeko aukera ematen dio.*

*Eredu horretan, ezinbestekoa da dimentsio anitzeko datuak atzemateko, gaixoen segmentazioa egiteko, emaitzak monitorizatzeko eta erabaki klinikoan laguntzeko erremintak garatzen dituzten industria enpresek parte hartzea.*

*IIS BIODONOSTIAREN Berrikuntzarako Laguntza Unitateak enpresa harremanetan jartzen du osasun ingurune bioteknologiko edo biomedikoko hainbat agenterekin, araudiari buruzko aholkularitza eskaintzen die, etab.*

*Era berean, kasu honetan, IIS BIODONOSTIAK, Berrikuntzarako Laguntza Unitatearen bitartez, laguntza eskain dezake datuak kudeatzeko software bat garatzeko, ospitaleratutako gaixoen tratamendu kliniko errazteko eta optimizatzeko, big-dataren eta data-mining tekniken goraldea aprobetxatuz.*

*Halaber, Institutuaren Biologia Konputazionalako Plataformak proiektua babestu dezake datuak ustiatuta eta aldagaien arteko harremanak bilatuz, kudeaketa kliniko optimizatzeko, beste alderdi askoren artean.*

**3. adibidea:** produktuen garapenaren sektoreko enpresa batek aztertu nahi du bertan garatutako produktu batek zer efektu duen hainbat zelula lerrotan.



*Institutuak zelula kultiboak analizatzeko zerbitzu sorta zabala eskaintzen du, eta hainbat produktuk zelula lerro batean duten efektuaren azterketa erraztu dezakete. Gainera, produktua animalien probatzen bada Animaliategiko Plataforman, Histologiako Plataformak ehunen azterketa immuno-histologikoa egin dezake. Aldi berean, Ikerketa Klinikoaren Plataformak azterketa kliniko formal bat egin dezake ondorengo faseetan, gizakiengan probatzeko.*

#### 48. ARTIKULUA. IIS BIODONOSTIA BONU TEKNOLOGIKOAREN ZERBITZUEN KATALOGOA

<b>IIS BIODONOSTIAKO ZERBITZUEN KATALOGOA</b>
<b>IIS BIODONOSTIAREN ZERBITZUAK</b>
IIS Biodonostiako Ikerketa Bultzatzeko Plataformaren, Berrikuntzarako Laguntza Unitatearen eta Ikerketa Taldeen zerbitzuen eskaintza, Donostiako Sustapenaren 2018ko Bonu Teknologikoan emateko.
<b>OSASUN BIOTEKNOLOGIAREN EREMUKO LABORATEGI ZERBITZUAK</b>
<p><b>Animaliategi Plataforma eta Operazio-gela Esperimentala</b></p> <p>Animalien Ikerketak egiteko Proiektuen diseinua.</p> <p>Animalia-eredu esperimentalen garapenaren zuzendaritza.</p> <p>Prozedura esperimentalen aholkularitza metodologikoa eta zientifikoa.</p> <p>Entsegu preklinikoaren definizioaren koordinazioa.</p> <p>1 motako proiektuetan koordinazioa eta aholkularitza.</p> <p>Plataformako langileek erabiltzaileentzako prestakuntza ematea ekipoak eta teknikak erabiltzeko.</p> <p>Martxoaren 20ko ECC/566/2015 aginduko parametroen gaineko etengabeko prestakuntza; agindu horren bitartez, helburu zientifikoetarako eta irakaskuntzarako esperimentazio-animaliak erabiltzen dituzten langileek bete beharreko trebetasun-baldintzak ezartzen dira.</p> <p>Espezializazio-ikastaro mediko-kirurgikoak antolatzea teknologia eta sistema berrietan.</p> <p>Animalien osasunaren eta ongizatearen gaineko aholkularitza-zerbitzua.</p> <p>Animalien Esperimentazioko Etika Batzordeari, Gaitutako Organoari eta Eskumeneko Agintaritzari proiektuak baimentzeko beharrezko dokumentazioa izapidetzea.</p> <p>Espezie ezberdinen organoen eta ehunen hornidura.</p>

### **Biologia Konputazionalako Plataforma**

Datu-meatzaritza, estatistika-analisia eta izaera ezberdineko irudi-datuen eta datu omikoen analisia (transkriptomikoak, epigenomikoak eta mutazionalak); datuak plataforma teknologiko ezberdinek sortutakoak izango dira (mikroarray-ak eta NGS sekuentziazio masiboa), oinarriko biologiako nahiz biomedikuntza aplikatuko aplikazioetarako.

Aholkularitza esperimenteren diseinuan.

Nazioarteko lankidetzen bitartez urte askotako esperientziaren ondoren baliozkotutako eta optimizatutako softwarea erabilia, kalitate-kontrola eta datuen analisia.

Lortutako emaitzak informazio eta guzti sartzeara datu-base biologiko eta biomediko askotan, algoritmoak etengabe egokituaz.

Informazioaren zenbakizko tratamenduaren eta horri dagokion ezagutzaren interpretazio biologikoaren arteko hesia estaltzea.

Aholkularitza emaitzak interpretatzeko eta horiei balioa emateko esperimenteru gehigarriak proposatzeko.

